



ARGIA



FRANTZIAKO LEGEBILTZARRERAKO BOZAK

Muturrekoa, eskuin muturrari

4-13. orrialdeak

Ezkerraren mesederako izan da "boto errepublikarra", behingoagatik

Eskuin muturrak hazten jarraitzen du: bi urtean 88 diputatutik 143ra

EH Baik lehen aldiz lortu du ordezkaritza Parisen: Peio Dufau



Teknologia euskaratik lantzen

26 | ADIMEN ARTIFIZIALA



"Itsuen kirolak errukiz-edo ikusten ditu jendeak"

36 | ARITZ HUARTE



"Aurreko belaunalditik gurera, salto ideologiko bat egon da"

46 | LIZAR BEGOÑA

#2.879 | 2024/07/14 | 4,00 €



%100 kotoi organikoz landutako kamiseta hau erosita, ekarpen ekonomikoa egingo diozu Amillubi proiektuari, baita ARGIA kazetaritza proiektu independenteari ere. Informazio + www.amillubi.eus

Prezioa **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.



azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | ENDIKA ALABORT
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | SUKAR HORIA
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: PASCAL SONNET / HANS LUCAS

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



BATORY FUNDACJA, CC-BY 2.0

14 | GAZTEEN ARTEAN, EZKER-ESKUI BANAKETA POLITIKOA GENERO IKUSPEGITIK ERE AZTERTU DAITEKE

The Economist aldizkariak Ipar Amerikako, Europako eta Hego Koreako 20 herrialderen inkesta politikoen datuak aztertu ditu. Analisi horren arabera, beren burua aurrerakoitzat dute 18-29 urteko gizonezkoen %51k baina adin bereko emakumezkoen %63,5ak. Nicolas Goñik aztertu du gaia Net Hurbil atalean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ANA LAURA DUARTE

“Janaria mintzaira bat da, epistemologia alferno bat”

Danela Sarriugarte

26 | EUSKARA

Nola erabili da adimen artifiziala euskara zabaltzeko?

Olaia L. Garaialde

32 | ANALISIA | TRAKTOREEN PROTESTAK

Zerekin egiten dugu amets?

Mirene Begiristain eta Isabel Alvarez

36 | KIROLA | HARITZ HUARTE

“Kirolari itsuak gara, eta ez itsuak kirola egiten”

Eñaut Agirrebengoa

46 | KULTURA | LIZAR BEGOÑA

“Loturak antsietate eta inpazientzia handiagoz bizi ditu gure belaunaldiak”

Lander Arretxea



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julen Ugartemendia, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Manex Usarralde, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Olaia L. Garaialde, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X
Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria


Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko bazkide da ARGIA



Ezker muturrekoa

Azken urteotako hauteskundeetan Mendebaldeko ezkerreko jendeak ez du ospatzeko arrazoirik izan. Guztiz bestelakoak, bai ordea. Gominadun ultraeskuina harrotuta dago eta Europako bigarren potentzia nagusiaren jabe egitea mugarri garrantzitsua izango zen, langile klasearen kalterako. Bere burua zatitzen historikoki iaioagoa da ezkerria, baina Fronte Herritar Berria osatu izanak nahikoa ilusio piztu du, askorentzat galduta zegoena lortzeko. Le Pen eta Bardellaren eskuin muturrari ezker muturrekoa eman diote, eta bide batez, baita Macronen eskuinari ere. Orain dator zailena: zerbaiten kontra elkartetik, zerbait berriaren eraikuntzan aritzera, baita gobernutik ere. François Ruffinek esan bezala, azken aukera da.

📍 Hauteskundearen emaitzen ospakizuna Parisko Errepublikaren Plazan.

Erdigunean "Gazteek fatxak haserrarazten dituzte" dioen kartela. / MILLA MORISSON

AXIER LOPEZ

UNESSE
MERDE
ACHOS



ANALISIA

Fronte Herritar Berria garaile atera da, eta hirugarren kokatu da eskuin muturra

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

20:00etan atera dira lehen datuak, harridura orokorra eraginez: zundaketa guziek lehen kokatzen zuten eskuin muturreko RN hirugarren atera da eta ezkerreko FHB Fronte Herritar Berria garaile. Gehiengoan edota gehiengo osoan ikusten zen RN Batasun Nazionalarentzat zaplaztekoa izan da, eta FHBrentzat, berriz, ezustekoa eta poza. Gaualdi elektorala aitzinatu ahal, berandu heldu da Frantziako Legebiltzarraren osaketa berria: ezkerreko FHBk 182 diputatu, Macronen Ensemble taldeak 163 aulki, eskuin muturreko RNk 143, Errepublikarrak alderdiak eta eskuindarrek 68 eta bestelako ezkertiarrek 11 eta bestelako independenteek 10. Lehen itzulian bezala, parte-hartze handia izan da -%66,6koa-, azken 25 urteetako handiena. Lehen itzulian ez bezala, lehen indarra atera da ezkerria eta bigarren kokatu da Macron presidentearen aldeko Ensemble blokea. Eskuin muturraren mehatxupearan, ezkerretik eta Macronen aldetik galdaturiko "boto errepublikarra" eman da beraz: bozkatzaileek gustukoari, eta hori ezean, RNri bidea mozteko hautagaiari eman diote botoa.

Ez du, ordea, gehiengo osoa lortu ezkerrek -289 diputatu- eta hori horrela, Legebiltzarrean 2022az geroztik egondako blokeo eta buruhauste sutsuak aurreikusi daitezke legealdi honetan ere (hain zuzen, 2022an galdu zuen gehiengo osoa Macronen alderdiak). Lehen ministro Gabriel Attalek dimitituko duela jakitera eman du emaitzak jakin bezain laster: "Errepublikar tradizioari segi, nire dimisioa aurkeztuko diot Errepublikako presidenteari". Ensemble mac-



Fronte Herriar Berria atera da garaile.


LIBERATION

ronisten taldea gutiengoan kokatu denez hartu du erabakia, zehaztuz hala ere gobernu berria osatu artean bere funtzioak segituko dituela. Hain zuzen, Olinpiar Jokoak hastekoak dira uztailearen 26an Frantzian eta testuinguru horretan karguak aitzina eraman beharra azpimarratu du. Emmanuel Macron presidentek ez du hitza hartu, eta jakitera eman duenez, legebiltzarraren osaketa berria argitzen denean plazaratuko ditu "hartu beharreko erabakiak".

"Justizia sozialak irabazi du, ingurumenaren aldeko justiziak irabazi du, eta herriak irabazi du", adierazi du emaitzak jakin bezain laster ezkerreko ordezkari Marine Tondelier ekologistak. Harriduraz eta pozez hartu dituzte emaitzak ezkerreko ordezkariak eta herritarrak eskertzen dabilta guziak. Eskuin muturraren aurka deituak ziren

protestak, azkenean, ezkerren garai-penaren aldeko manifestazio bihurtu ziren hainbat hiritan -Paris, Marseilla, Bordale, Nantes ala beste-. Alderdi Komunistako Fabien Rousselek ondoko mezua zabaldu du: "Aurreikusita zegoena saihestu du herriak. Herriaz harro nago. Erantzun behar diogu hats-hartze horri, horren behar gorria dago". Hitza hartu du Frantzia Intsumisoaren ordezkari Jean-Luc Melenchonek ere, eta argitu du Fronte Herritar Berria egonen dela gobernuan: "Bere erara, FHBk Errepublika salbatu du". Alderdi Sozialistako idazkari nagusi Olivier Faurek ere azpimarratu du Frantziako Estatua-arentzako "proiektu politiko berri bat osatzeko" garaia etorri dela.

Horrela ihardoki die emaitzei Jordan Bardella eskuin muturreko ordezkariak, aurpegian nabari zitziola pena eta de-



zepzioa: "Desohorearen aliantzengatik eta antolabide elektoral arriskutsuengatik frantsesek ez dute susperraldi politikarik ukanen". Marine Le Penek ere hitza hartu du, irakurketa baikorragoa zabalduz: Errepublikarrak alderditik Frantzia Intsumisioa arte doan "naturaren kontrako aliantzagatik" galdu du RNk, baina dioenez, goiz ala berant helduko dira boterera. Lorturiko garaipenean jarri du fokua. Hirugarren kokatu arren, garapen handia –alderdi guzien artean handiena– jaso duelako eskuin muturrak: 2017an zortzi diputatu zituen, 2022an 88 lortu zituen eta aldi honetan 143.

EZKERRE GOBERNURA, LEHEN MINISTROA IZENDATZEKE

Ezkerreko FHBk aurkeztuko du lehen ministroaren kargurako ordezkaria. Batasun zabal horrek ondoko egunetan lortu beharreko lehen adostasun garrantzitsuenetarikoa izanen da hori. Hain zuzen, politikoki estrategia eta postura politiko ezberdinak dituzte haien artean ezkerreko alderdiek, baina desadostasunen gainetik pasaz, batasunaren parioa egiteko heldutasuna erakutsi dute aldi

Hirugarren kokatu arren, garapen handia –alderdi guzien artean, handiena– lortu du RN eskuin muturrak, 143 diputatu eskuratuta

honetan, eta hori eskuin muturrari bidea mozteko. Macronek duen sostengu-eza ikusirik, banaturik abiatuz gero RNren garaipena segurra zelako.

Hauteskunde gaua lanean pasa zuten ezkerreko alderdien ordezkariak eta biharamun goizerako bazuten mezu argia: aste honetan berean aurkeztu beharko lukete "gobernuaren osaketa berria".

FHB Fronte Herritar Berriaren osaketari hurbilagotik begiraturaz, 75 inguru dira ezker muturreko Frantzia Intsumisioa alderdikoak, 62 eta 67 artean Alderdi Sozialistakoak, 33 eta 35 artean ekologisten alderdikoak, dozena bat Alderdi Komunistakoak eta beste hiru dira bestelakoak –tartean, adibidez, Peio Du-fau EH Bai koalizio abertzalekoa, Fran-

tziako Legebiltzarrean aukia lortzen duen lehen abertzalea bihurturik–. Hori horrela, Frantzia Intsumisioa da alderdirik indartsuena diputatuz, baina aitzineko hauteskundeen emaitzei begiraturaz gero, Alderdi Sozialista dugu garapen esanguratsuena lortu duena –2022an 31 aukia lortu zituen–.

Gehiengo argirik ez bada ere legebiltzarrean, ezkerrearen inguruan adostu beharra ohartarazi du Yannick Jadot ekologistak: "Egun batzuk beharko ditu legebiltzarrak antolatzeko eta herri hau gobernatzen saiatzeko. (...) Aukera guziaz aztertu beharko dituzte legebiltzarreko taldeek, baina nahi edo ez gure proiektuaren inguruan osatu beharko da". Frantzia Intsumisioa bazterturik, ezkerreko beste alderdiei dei egiten dabilta Macronen aldeko batzuk, tartean lehen ministro izandako Edouard Philippe. Macronek gehiengoan aitzina egiteko beste bloke bat litzateke Ensemblekoek eta Errepublikarrak eskuinekoen arteko batasuna, batuketa eginez ezkerrekoek baino aukia gehiago lortzen dituelako. Ikusteke dago nola antolatuko diren indarrak, baina argi den gauza bakarra da eskuin muturra ez dela nagusi. ●

Ultraeskuinari harresia, baita Ipar Euskal Herrian ere

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Frantziako Estatu mailan bezalatsu, edo are indartsuago, egin diote herritarrek aurre ultraeskuinari. Ipar Euskal Herrian harresia ezarri diote diskurtso homofobo eta arrazistei. "Eskuin muturrari dantzatzea ukatu diogu", zioten igande gauerdian, Lapurdiko kostaldean, Fronte Herritar Berria ezkerreko koalizioko kideek, haien hautagai Peio Dufau Parisera joango dela baieztatu berrian, ozta-ozta Macronen Ensemble-ri gailendu zitzaiola konfirmatuta.

Lehen itzulian baino aiseago gailendu zaio Fronte Herritar Berria koalizioa Batasun Nazionalari. Ekainaren 30ean 11.000 boto inguruko aldea atera zion ezkerrek ultraeskuinari, eta bigarren itzulian 30.000koa izan da diferentzia. Alegia, itzuli batetik bestera, ezkerrek hirukoiztu egin dio aldea ultraeskuinari.

Ipar Euskal Herriko eta Biarnoko zati bat hartzen duten hiru hautesbarrutietatik Frantziako Asanblea Nazionalera joango diren hiru diputatuak Fronte Herritar Berrikoak izanen dira: Iñaki Echaniz eta Colette Capdevielle sozialistak, laugarren eta bosgarren hautesbarrutietatik; eta Peio Dufau abertzalea, seigarrenetik.





Hiru hautagai horiek biderkatu egin dizkiote boto-diferentziak ultraeskuinteko aurkariari. Hurrenez hurren, laugarren hautesbarrutian, Echanizek 11.000 bozoko aldearekin irabazi dio Batasun Nazionalari -7.000ko diferentzia atera zion lehen itzulian-; bosgarrenean, Capdeviellek 16.000 botoen aldea izan du -3.000koa izan zen lehen itzulian-; eta Dufauk, seigarren hautesbarrutian, bikoiztu egin du aldea, 3.000tik 6.000ra.

4. HAUTESBARRUTIA: ECHANIZ, BOTOEN ERDIEKIN

Zuberoa, Nafarroa Beherea, Hazparne eta Biarnoko herri batzuk hartzen dituen hautesbarrutian %73,9ko parte-hartzea izan da, lehen itzulian baino ia puntu bat handiagoa. 2022ko hauteskunde legegileekin alderatuta, ia 20 puntu egin du gora parte-hartzeak.

Lehen itzulian baino are nagusitasun handiagoz, Fronte Herritar Berriko Iñaki Echaniz izan da garaile. Boto-porzentaian 10 puntu egin du gora -kasik 6.000 boto gehiago; guztira, 27.000-. Barrutiko botoen ia erdia lortu du.

Dena den, eskuin muturreko eta eskuineko bi aurkariak ere boto kopuru absolututan gora egin dute. Baina ez Echanizek bezainbeste: bien artean, igoera, ez da 5.000 botokoa izan.

 Fronte Herritar Berria
 Batasun Nazionala
 Ensemble
 Résistons!

6. barrutia

5. barrutia

4. barrutia



4. hautesbarrutia

Iñaki Echaniz

Fronte Herritar Berria
(Alderdi Sozialista)
27.762 boto



5. hautesbarrutia

Colette Capdevielle

Fronte Herritar Berria
(Alderdi Sozialista)
40.607 boto



6. hautesbarrutia

Peio Dufau

Fronte Herritar Berria
(EH Bai)
27.117 boto

5. HAUTESBARRUTIA: CAPDEVIELLE, ASTINDUA EMANDA

Kostaldeko hiri handiak –Baiona edo Angelu, esaterako– zein barrualdeko herriak hartzen dituen barruti honetan, Batasun Nazionalak soilik Gixunen irabazi du, oso tarte txikiagatik, eta gainerako udalerrietan ezkerria atera da garaile.

Colette Capdevielle sozialistaren hautagaitzak 40.607 boz jaso ditu, boto guztien %62,64, eta ia bikoiztu egin ditu duela astebeteko emaitzak –22.643–. Aldiz, Batasun Nazionalako hautagaiak aurreko astean baino milaka boz batzuk gehiago jaso baditu ere –ordukoan 19.308 boto eta orain 24.221–, orotara bozen %37,36 erdietsi du; hau da, ezkerria ia hogeita bost puntuko aldea atera dio eskuin muturrari.

Parte-hartzea, barruti honetan, lehen astekoaren oso antzekoa izan da, oso altua beraz, deituta zeuden herritarren %70,72 joan dira hautestontzietara.

6. HAUTESBARRUTIA: DUFU, ABERTZALE BAT PARISEN

Lapurdiren zati handiena hartzen du seigarren barrutiak: kostaldea batik bat, Hendaiatik Biarritzera. Lehia estua aurreikusten zen lehen itzulitik, bereziki macronista eta abertzaleen artean, eta atzeraxeagotik bazen ere zeharka

160 udalerrietatik
142tan gailendu da
Fronte Herritar Berria;
Zuberoan, herri
guztietan

begiratzen zuen ultraeskuinak. Lehen itzulian, 1.800 boto eskasengatik irabazi zion Christian Devèze macronistak Peio Dufau abertzaleari, baina bigarren itzulian irauli da norgehiagoka: 1.700 boz, Dufauren alde. Beraz, bosgarren errepublikan estreinakoz, legebiltzarkide abertzale eta euskalduna izango da Parisen. Atzeraxeago, Fronte Herritar Berriak baino 6.000 boto gutxiagorekin geratu da Batasun Nazionala.

Macronistek segitu dute indartsu Donibane Lohizunetik Biarritzera, kostaldean, salbu eta Bidarten. Zonalde horretatik irtenda, nabarmentzekoa da hiru udalerritan soilik gailendu dela Dufau ez beste norbait; kasuon, ultraeskuina: Ainhoan –bost boto eskaseko aldeaz–, Jatsun eta Haltsun.

UDALERRIKA: 160TIK 142TAN, EZKERRA

Argigarria da mapak erakusten duen ezkerren nagusitasuna Ipar Euskal Herrian. Frantziako Estatuari begiratuta, gurean are argiago gailendu da ezkerria. Zifretara ekarrita: Lapurdin, 41 udalerritatik 30etan gailendu da Fronte Herritar Berria; Nafarroa-Beherean 75etik 68tan; eta Zuberoan guzti-guztietan, 44tik 44tan.

Indar politikoen arabera, hauxe emaitza: 160tik 142 udalerritan lehen indarra izan da Fronte Herritar Berria, zarpina lekutan Ensemble eta Batasun Nazionala eta lau udalerritan Résistons! alderdia.

Bista-bistako aldaketa batzuk izan dira lehen itzulitik bigarrenez. Esaterako, bosgarren hautesbarrutian, Hiriburutik ekialderako guzian, Batasun Nazionala gailendu zen lehen itzulian –Beskoitzen, Milafrangan, Bardozen edota Bidaxunen–. Aldiz, joan den igandeko emaitzetan, soilik Gixunen irabazi zuen ultraeskuinak, apenas bost botori esker.

Oro har, ez bada izan Fronte Herritar Berriaren mesedetan, ez da egon kolorez aldatu den udalerririk; macronistek eta Batasun Nazionalakoek babesa galdu dute eta ez dira lehen itzulian gailendu ez ziren inon nagusitu, eta udalerririk galdu dituzte. ●

IÑAKI ECHANIZ:

“Itxaropen haizea dakar Fronte Herritar Berriaren dinamikak”

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Iñaki Echanizek irabazi du Zube-roa, Nafarroa Beherea, Hazparne eta Biarnoko zati bat barnebiltzen dituen laugarren hautesbarrutian. 2022an bezala, garaile atera da, ezkerreko Fronte Herritar Berriaren izenean.

Has gaitezen zure garaipenarekin. Zein da zure irakurketa eta sentipena?

Poza, baita lan ona eraman izanaren sentipena, horra zer sentitzen dudana. Triangular batean kasik %48 egin izana nahiko historikoa da eta bastioi berri batzuk ere irabazi ditugu. Egindako lanaren emaitza da, baita ezker osoak batera aurkezturiko hautagaitzaren koherentziarena ere, lurralde honetan, partikulazki, EH Bairekin osaturikoa. Itxaropen haize bat dakar FHB Fronte Herritar Berriaren dinamikak.

EH Bai aipatzen duzula, Peio Dufau abertzaleak lortu du diputatu aulkia.

Albiste harrigarria da, izugarri pozik naiz, garaipenak ez zuen zapora bera ukanen ez banintz Colette Capdevielle eta Peio Dufaurekin igo Parisera. Kanpainan zehar adierazpen ahalkegarri batzuei aurre egin behar izan diegu, ordezkari politiko batzuk hitz gogorak ukan dituzte EH Bairi buruz eta ezkerreko eskuin muturraren pare jarritz. Emaitzek erakutsi digute bozkatzaileek ez dituztela jarraitu. Porrot morala eta politikoa da haiena.

Ezkerreko alderdi guzien eta EH Bairen arteko batasuna historikoa da.

Historikoa da Euskal Herri mailan, baita departamendu mailan ere. Hainbat osagaiei esker izan da posible. Hasteko, bi urtez eraikitako zubien emaitza da. Biziki harro naiz oroitzarekin 2022ko kanpainako bulegoan egon zirela Egoitz Urrutikoetxea eta beste ordezkari abertzale batzuk. Bi urtez elkarrekin lanean aritu gara, auzapez abertzaleekin elkarlanean aritu gara. Elkar ezagutzen eta elkarrekin lan egiten



RADIO FRANCE

ikasi dugu, eta jakin dugu lurraldearen interesak etiketa politikoen gainetik kokatzen. Oroz gainetik, iraganeko liskarren gainetik pasatzen jakin dugu: kapitulu politiko berri bat ireki behar dugu, eta agian, liburu berri bat. Uste dut sarrera biziki on bat idazten asmatu dugula.

Ipar Euskal Herriko hiru diputatuak FHBkoak zarete. Hala ere, ezin uka RN indartsu dugula hemen ere.

Ezin dugu ezikusiarrena egin: ideia arrazisten, xenofoboan, antisemiten eta baztertzailen aldeko botoa hor da. Eta bada ere kezu den jendea, aspertua dena eta RN aterabidea izan daitekeela pentsatzen duena. Eskuin muturra lapurreta bat da, ez da inoiz klase popularraren eta klase ertainaren aldean egon, eta ez du gobernatzeko gaitasunik. Bideraturiko hesi errepublikarrak baita beren ezgaitasunak eta lekuko hautagaien adierazpen ahalkegarriek kalte handia egin diete RNri.

FHBren garaipena espero zenuen ala sorpresa izan da?

Partidu gogorra jokatzera gindoazela banekien, baina egiari zor, ez nuen uste horrelako garaipena lortuko genuenik. Sorpresa izan da, eta lasaitasun handia.

Herritarrak mobilizatu dira, eskuin muturrari bidea mozteko.

Herritarrek eramandako kanpaina izan da, herritar olatua gertatu da. Militante anitzek lagundu naute, horietarik anitz ez ziren alderdi batekoak, ez zuten inoiz eskuorrik banatu merkatuetan. Lortu dugu Ossauko ibarretik Aldudekora arte mezua helarazten, militanteki.

Nola egiten zaio aurre eskuin muturraren garapenari?

Elkarrizketa berriz abiarazi behar dugu, lasaitasuna berreskuratu behar dugu eta herritarren arazoei aterabideak proposatu behar ditugu –argi utziz ez dugula makila magikorik, eta promesa handirik egin gabe–. Poliki-poliki eta ahal bezain laster lortu behar dugu herritarren egunerokoa bestelakotzen. Pertsonek, ahal dudana guziaz egingen dut; lan handia dugu aurrean, gaur hasten da dena.

Gehiengo osoa ez du, ordea, FHBk. Korapilatsua dirudi egoerak.

Egia da ez dela egoerarik sinpleena. Baina badakit ere erantzuteko gaitasuna dugula, ildo politiko eta argia dugu, gure programari segi egingen dugu aitzina. Gure esparru politikoaz harago irekitzeko gaitasuna ere badugula badakit, beti ere justizia sozial, fiskal eta ekologikoari dagokionez. Oposizio argian egon naiz bi urtez, baina gehiengoko diputatu batekin aurkeztu izan dut testu bat: lege proposamena zentzu onera doanean, printzipioz eraikitzeko gaitasunarekin dator.

Macronista batzuk LFI Frantzia Intsumisioa gabeko gehiengo errepublikar baten alde kokatu dira.

Frantzia Intsumisioa eta eskuin muturra hein berean jartze hori penagarria zait. LFIrekin lan egin dut bi urtez, mamian baina batez ere forman ez gara beti ados, baina bada jende biziki ona LFIn baitan. Guzian ados ez bagara ere, oinarri ideologiko bera dugu. Bozka ontziek hitz egin dute, eta orain etiketa politikoen gainetik pasa eta programa eramanez dugu aitzina. ●

*“Euskal Herriaren
bozak Parisera
eramatera goaz.
Oztopatua izan naiz
anitz. Orain, ezkerreko
diputatu izanen naiz”*

Peio Dufau

Fronte Herreritar Berria



*“Gure herriak bere
kalterako konponbidea
baztertu du.
RN gehiengo osotik
urrun dago”*

Jean-Luc Melenchon

Frantzia Intsumisoa



*“Errepublikar
tradizioari segi, nire
dimisioa aurkeztuko
diot Errepublikako
presidenteari”*

Gabriel Attal
lehen ministroa

Ensemble



*“Itsasaldia igo egin
da, baina ez da
behar bezainbeste
igo oraingoan;
halere, jarraitzen
du igotzen”*

Marine Le Pen

Rassemblement
National



4

Eskualde eta Herri Solidarioak (RPS) federazioak lau diputatu abertzale lortu ditu, bi korsikar, bretoi bat eta euskaldun bat: Michel Castellant, Paul-André Colombani, Paul Molac eta Peio Dufau.

%57,33

Kanaky irlan, Emmanuel Tjibaou independentistak lortu du garaipena, botoen %57,33 jasorik. Loialista den Alcide Ponga zuen parean. 1986az geroztik ez zen irlako independentistarik egon Frantziako Legebiltzarrean. Kanakek bi diputatu dituzte, eta bigarrena, haatik, loialista bat da.

Hesi istorio



PAULINE GUELLE

Nork aurreikusten ahal zuen 2024an Peio Dufau –Marie Heguy-Urain duelarik ordezko– EH Baiko hautagaia, diputatu izanen zela? Eskuin muturraren kontrako kanpainak eta estrategiak funtzionatu du. Ipar Euskal Herriak ez du faxistarik bidaliko Frantziako Asanblea Nazionalera. Noiz arte ezarriko dira plantan eskuin muturrari buru egiteko estrategiak? Aliantza hauskorrek eraikitzen hasi ziren Ipar Euskal Herrian ere “jakobino” deklaratuak baztertuz Fronte Herriar Berriaren baitan. Bosgarren barrutian Colette Capdeviellen hautagaitzari abertzaleen sostengua erantsi dio Alain Iriartek hainbat helburu amankomun adostuz euskararen ofizialtasunaz edo garapen instituzionalaz.

Hala ere, ezin dugu ukatu azken hamarkadetan Europara iritsi den uhain faxista Euskal Herrira hedatu dela. Ez du balio zenbakiekin gehiegi aritzea: politika instituzionalaren bidez, lehen aldikoz, eskuin muturra gailendu zen Europako hauteskundeetan eta Frantziako Asanblea Nazionaleko hauteskundeetan haren presentzia baieztatu du nahiz eta eserlekurik ez bildu Iparraldean. Denetara bozen %31 eskuratu du eskuin muturrak Ipar Euskal Herrian; bosgarren bozka eremuan (Angelutik Burguera) emaitza kezkagarriak egiten dituelarik. Seinale hori itzalpean atxiki da, hein batean, Mugerre, Urketa eta Lehuntzeko herrietan legebiltzarreko lehen itzuliko tendentzia aldatu baitu kanpainak. Ipar Euskal Herrian ez bada lehen atera zerk eragin izan du uholde hori? Herri guzietan faxisten aldeko bozkak gora egin du, bi itzulien artean ere bai. Argi eta garbi jendarte kolonizatu bat garelako adierazten du. Ideien eta funtzionamenduaren aldetik gure he-



Peio Dufau abertzale ezkertiarra Parisen izango da.

Herri guzietan faxisten aldeko bozkak gora egin du, bi itzulien artean ere bai. Argi eta garbi jendarte kolonizatu bat garelako adierazten du

rriaren errealtate gordin bat erakusten digute bozkek. Orokortu gabe –bozkatzaileen %27,76a abstenitu da–, baina kezkatzeko gisakoa.


Pixkanaka elkartasunaren ideari herrak hartu dio gaina politika instituzionalaz ari garelarik. Hori, hedabideen konplizitatearekin: etxe guzietan den telebistak informazio bortitzak botatzen

ditu jarraian. Seigarren barrutiko sorpresak agerian utzi ditu bi Ipar Euskal Herri bi itzulien arteko eztabaidan. Mugaren gaia aipatzean eskuin muturrak kontrolaren eta migrazioen etetearen alde egiten zuelarik, Dufauk oroitarazi zuen goiz batez herriko auzapezak deitu zuela treinbidean lau pertsona kolpatuak izan zirela errateko. Muga pasatzeko leku segururik ezean, lauetatik hiru hil ziren. Diskurtso antagonikoen dantzan gaur ezkerrek instituzioetan egotea lortu du. Baina bihar?

Gure jendarte berrairikitzeko tresnak ugaritu beharko ditugu sozialki, kulturalki, ekonomikoki eta politikoki. Euskaldun gisa, ttipitik eragiteak badu zentzu, eskuin muturrari eta jakobinoei lekurik utzi gabe, gure espazioak sendotuz eta biderkatuz. Hori frantses politika instituzionalak ez ditzan gure egunerokotasuna eta eskubideak baldintzatu. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Eutsi beldurrei



UXUE APAOLAZA LARREA

Zutabe hau idazteari uko egin behar nioke, baina berandu da. Hauteskundeak izan dira Frantzian. Non dago Frantzia? Bai, hemen goian, iparraldean; baina, munduan, ez dakit oraintxe non dagoen Frantzia, noren zer den. Eta ez dakit noiztik begiratzen diodan ia soilik beldurrez.

Ez dakit ia ezer Frantziako politikari buruz. Gipuzkoako euskaldun horietako bat naiz, Espainiako politika bertakoa baino zehatzago ezagutzen duena, eta Frantziakoaz aspaldiko orokorkeriak, gure Iparraldeaz ere antzeko. Ezjakintasun hori kritikatzeko autokritika bat egin nezake.

Edo gaiari, oraingoan, zera ematen ziotenetan zentratu: ea Peio Dufau abertzalea diputatu izango zen (bai), NFPren barruan; ea FNk, eskuin muturrak, hauteskundeak irabaziko zituen. Baina zoritxarrezon ez NFPk irabazi du, eta ez dakit esaten ezer.

Tematu naiteke eskuin muturrarekin, ez dute irabazi, baina irabazi dute, eta gorakada globala da. Apokaliptiko jar naiteke, berriro. Zorte txarrak nahi izan du Erresuma Batuan emaitzak oso bestelakoak izatea. Ez du kointzidentziarik orokorkeriarako ematen. Baina emango balu ere, zer, ez dut diagnostiko argirik ikusten, nik ere ez dut, hilean bat bururatzen zait, eta asko haserretzen naiz azalpen askorekin, eta bai-bai egiten diet beste hainbesteri, baina, gero, tira, baina... eta nik zer dakit, ahaztu ere bai. Ez naiz ausartzen iritzi bat edukitzera ere, agian, horregatik ditut hainbeste. Batzuetan uste dut ez genituzkeela gehiago eduki behar gaiari buruz denbora batean, traumatizatuta dirudigula, ez dugula ondorio egokirik ateratzen.

Zerbait esatearren, frantziarrei ere niri adinako beldurra ematen die dirudienez beren herrialdearen zati batek, eta beldur hori errentagarria izan da eserlekutan (eta, beraz, batez ere, ez-eserlekutan). Gogora etorri zait hona lehenago ekarritako Graboisen esaldi hura (Borges parafraseatuz) *“si no es el amor, que sea el espanto”*; ez zuen funtzionatu, eta argentinarren ausardiak ekarri du agian Milei, eta frantziarren beldurrak erausi dio gobernua Le Peni. Agian hori asmatu behar da, zer bideratu unean-unean, ausardia edo beldurra. Eta gu tematuta beldurrak gaingitu, uxatu, ez-entzun nahian. Bizitzak erakutsitako beldurrak ez dira inola ere ondolik uxatu behar arrazoi ez dutenik frogatu arte. Eta beharbada beldur konpartitu bat bada arrazoi nahikoa elkartzeko. Soluziorik baden jakin arte, beldurrak salba (elkar) gaitzala. ●



GAZTEEN ARTEAN, EZKER-ESKUIN BANAKETA POLITIKOA GENERO IKUSPEGITIK ERE AZTERTU DAITEKE

Azken bi hamarkadetan, herrialde garatuetako belaunaldi gazteetan zabaldu da generoen arteko urruntze ideologiko bat. Gizon gazte gero eta gehiagok ideia kontserbadoreak edo eskuin muturrekoak onesten ditu eta emakume zein pertsona ez-bitar gazte gero eta gehiagok bere burua aurrerakoitzat du eta ezkerrean kokatzen da. Urruntze ideologiko horrek, politikaz harago, kultura eta nortasun pertsonalarekin zerikusia du. Zein ondorio izan ditzake gure gizarteetan?

 NICOLAS GOÑI

Mendebalde globaleko herrialde gehienetan, kontsideratu ohi da gazteak direla orokorrean aurrerakoiagoak eta zaharrak aldiz kontserbadoreagoak. Azken urteotan iritzi politikoen artikulatzeko ardatz berri bat gehitu zaio adinari: generoa ere kontuan hartzen da. Gaur egun, Mendebaldeko emakumezko gazteak nabarmen aurrerakoiagoak dira adin bereko gizonetzkoak baino. Hainbat ikerketek erakusten dute iritzi politikoei dagokionez pertsona ez-bitarren multzoak emakumezkoen ezaugarriak dituela.

AEBetan zabalduak diren hainbat gizarte joera geroago hedatzen dira Europan, baina kasu honetan bilakaera aldiberekoa dela dirudi –herrialdez herrialdeko berezitasun gutirekin–. Aurten go martxoan, *The Economist* aldizkariak Ipar Amerikako, Europako eta Hego Koreako –Asian izanik ere, Mendebaldeko hainbat ezaugarri ditu– hogoi herrialderen inkesta politikoen datuak aztertu ditu –ikerketa hori binarismotik eramana da eta ez da ez-bitarrei buruzko datu-rik zehazten–. Analisi horren arabera, 2000 urtean ez zen generoen arteko ezberdintasunik nabaritzen iritzi politikoei dagokienez. Aldiz 2020an tartea argia da: beren burua aurrerakoitzat dute 18-29 urteko gizonetzkoen %51k baina adin

bereko emakumezkoen %63,5ak. Hogo herrialde horietan emakume gazteak dira gizon gazteak baino aurrerakoiagoak.

Europari dagokionez, tarte handiena Polonian ikusten da, eta Europan baino nabarmen handiagoa da AEBetan. Gainera, bereziki emendatu da azken hamar kadan: 2008an ez zen genero ezberdintasunik ageri, aldiz 2022ko Ordezkarien Ganberako hauteskundeetan gizonetzko gazteen %46ak eta emakumezko gazteen %28ak errepublikanoen alde bozkatu dute.

Flandrian (Belgikako iparrean), azken hauteskundeetan gizon gazteek gehien bozkatu dituzten alderdiak izan dira eskuin muturreko Vlaams Belang eta eskuinteko N-VA. Emakumezko gazteen artean, berriz, Groen alderdi ekologista eta ezkerreko Vooruit. Polonian iazko hauteskundeetan, 18-29 urtekoen artean gizonetzkoek gehien bozkaturiko alderdia eskuin muturreko Konfederacja izan da. Gizon gazteen bozen %26 bildu dituen alderdi horren lemetariko bat da "feministen aurka, benetako emakumeen defentsan". Halako edukiarekin ez da harriztekoa adin bereko emakumeen bozen %6 bakarrik lortu izana, eta emakume gazte gehienek abortua berriz legalizatzearen aldeko zentro ezkerreko alderdientzat bozkatu izana.

GIZON GAZTEAK, ZAHARRAGOAK BAINO ANTIFEMINISTAGOAK

Polonian duela bost urte IPSOS erakundeak egindako inkesta baten arabera, 18-39 urteko emakumeen iritziak klima aldaketa da Poloniarentzako arriskurik handiena. Adin tarte bereko gizonen iritziak, aldiz, LGBT mugimendua eta "genero ideologia" dira arrisku nagusiak. Poloniako Konfederacja alderdiak gain, hainbat herrialdeetan agertu dira diskurtso oso maskulinistak dituzten eskuin muturreko alderdiak, hala nola, Frantziako Reconquête, Espainian SALF edota Portugalen Chega. *La Croix* egunkariaren arabera, Chega alderdiak 2020an onarturiko barne mozio batek gomendatzen zuen abortatu zuten emakumeei obarioen ebakitzea, berriz egin ez zezaten. Hainbat protestaren ondorioz kendu bazuten ere mozioa, onargarritasunaren leihoa zabaltzen lagundu zuen.

Europako 27 herrialdeetarako bilakaera deigarri bat nabari da *The Economist* aldizkariak azterketan: orokorrean, 18-29 urteko gizonak 65 urtetik gorako gizonak baino antifeministagoak dira. Diote, emakumeen eskubideen garapena urrunegi joan dela eta horrek gizonentzako aukerak oztopatzen dituela. Hainbat herrialdeetako emakume gazteen iritziak kontrako bilakaera era-

kusten du. Adibidez, Erresuma Batuan emakumeen bizi baldintzak okerragoak direla deritzote gehiago emakume gazteek. Hego Korean aldaketa nabarmena da: 20-30 urteko gizonen %80ak dio gizon izateagatik diskriminatuak direla, baina 60 urtetik gorako gizonen %30k bakarrik.

GIZARTE ALDAKETEN HAUTEMATE EZBERDINAK

Mendebaldean, luzaz goi ikasketetatik baztertuak izan ondoren, gaur egun gizonak baino diplomatuagoak dira emakumeak –batez ere belaunaldi gazteetan-. Nahiz eta honek ez duen oraingoz ondorio proportzionalik lanpostu eta soldatari dagokienez, gizarte dinamikei buruzko ikuspegi informatuagoa dute emakumeek gaur egun. Horrez gain, unibertsitatetik igarotzea ikuspegi aurrerakoi eta berdinzaleagoarekin lotu ohi dute soziologoek. Herrialde aberatsetan sexismo arruntak atzera egin du azken hamarkadetan, eta horren hautemate ezberdina izan dezakete emakume eta gizonen eguneroko bizitzan: batzuentzat askatasun gehiago, bertzeentzat arau berriei egokitu beharra, gogo onez edo ez hain onez. Denbora luzeko bilakaera horien hautemate kontrastatua biderkatzeko sare sozialek, erabiltzaile bakoitzak bere "burbuila sozialean" bere iritziak sendotzen dituelarik, eta hori izan daiteke handituz doan polarizazioaren erruetarik bat.

AEBetan, Survey Center on American Life (Amerikar Bizitzari buruzko Inkestak Zentroa) erakundeak eraman duen ikerketa baten arabera, 1990eko hamarkadaren bukaeran eta 2000ko hamarkadaren hasieran jaiotako belaunaldikoek zailtasun gehiago dute bikote harrema-



BATORY FUNDACJA, CC-BY 2.0

“EZ NAIZ ESKLABO BIHURTUKO”. Polonian mugimendu feminista oldartu zen abortua ilegalizatzearen aurka. Aldiz, Mendebaldeko herrialde askotan bezala, bertako gizon gazte gehienek lehentasun politikoak oso bertzelakoak dira.

nak lotzeko eta bakarrik sentitzen dela dio aurreko belaunaldikoek baino gehiagok. Emakumeen %31k baina gizonen %16k bakarrik beren burua LGBTtzat dute. Proportzio horiek aurreko belaunaldietakoak baino handiagoak dira, eta are handiagoa da generoen arteko aldea. Gizonekin bizi nahi ez duten –eta ezkondu gabe bizi ahal diren– gaur bezainbat emakume izatea historikoki berria da.

Joera horren aurka oldartzen dira, noski, gizonesfera eta eskuin muturreko alderdi maskulinistak, eta feminismoa eta LGBT mugimendua desagertarazi nahi dituzte, "balio tradizionalen" ize-nean, baita azal zuridun ume gehiago so-

rrarazteko ere. Eskuin muturrari lotzeko bideetariko bat baita antifeminismoa. Bilakaera horri eman beharreko konponbidea ez da erraza. Nola gizon gazte gehiagori ulertarazi arau maskulinistek gizonak eta mutil gazteak ere kaltetzen dituztela eta LGBT mugimendua ez zaiela arrisku? Nola ulertarazi klima aldaketa eta zaintza direla benetako erronkak?

Belaunaldi gazteetan gertatzen diren kontrako bi mugimendu horiek, politikaz harago, kultura eta nortasun pertsonalarekin zerikusia dute, horregatik dira hain sakonak. Horregatik ere arrakala honen konponbideak, nahitaez, aldaketa sakonak beharko ditu. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Ana Laura Duarte

HARTZITZEN-HARTZITZEN



JANARIA MINTZAIRA BAT DA, EPISTEMOLOGIA ALTERNO BAT



Iruñerrian ondo ezagutzen dute, baina ni neu txundituta geratu nintzen Ana Laura Duarteren janari-instalazioak ikusi nituenean, lehenik Iruñeko Zitudadelan eta handik astebetara Uharteko parke batean, ekainaren erdialdean. Instalazio efimeroak izan ziren biak ala biak: dena jan genuen. Duartek argi dauka: elkarrekin jaten dugunean, jan baino askoz gehiago egiten dugu.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

Hasteko, aurkeztuko zenuke zure burua?

Uruguaiakoa naiz, baina duela 12 urte joan nintzen handik. Herrialde ederra da eta maite dut, baina ikasketak amaitu eta gero kanpora joan nahi nuen, zer gertatzen zen ezagutzera. Buenos Airesen egon nintzen bost urtez. Herrialde horren pasioak ireki egin ninduen eta hona etorri nintzen.

Zuzenean Iruñera?

Madrilera joan nintzen lehenengo. 2018an urtebete egin nuen hemen, eta duela hiru itzuli nintzen berriro. Denera lau urte egin ditut Iruñean baina tartean Madrilan eta Bruselan egon naiz. Proiektuen arabera mugitzen naiz, gauzak sortu ahala. Arte ikasketak hasi ni-

tuen, ez nituen amaitu, eta gero diseinu eszenikoa eta antzerki-jantzizaintza ikasi nituen. Buenos Airesen horretan aritu nintzen majo, baina Europara iristean beste praktika batzuei heldu nien. Hartzidurarekin lanean hasi nintzen, eta mundu bat zabaldu zitzaidan.

Zerk erakarri zintuen horrenbeste?

Hartzidura teknika bat da eta ez da berria, aspalditik erabili izan da elikagaiak kontserbatzeko. Badira errezeta batzuk eta funtzionatzen dute eta dena bikain. Baina ni bakterioen munduak erakarri ninduen: nolako harremanak eta komunitateak sortzen dituzten. Milioika bakterio daude: zoruan, berduren azalean, gure organismoan, hartzigarrietan, eta abar. Tailer bat ematen ari nintzela,

pentsatu nuen: hemen gaude guztiok, espezieen arteko harreman bat da, eta txundituta geratu nintzen.

Lantegietan zer egiten zenuten?

Oso praktikoak ziren. Hasiberrientzako lantegietan adibidez, elkarrekin nahasten eta prestatzen genuen hartzigarria, eta bakoitzak bere etxera eramaten zuen gero potoa. Hartziduraren prozesua ulertzen genuen: zer bakterio ugalduko ziren, zer gertatuko zen, zer gertatuko zitzaigun guri jan ostean... Elikagai horiek bizirik daude, eta eraldatu egiten dira.

Zer egin behar da janak hartzitzeko?

Sasoiko frutak edo berdurak behar dira, eta gatza. Dena oratzen da, eta prozesu horretan elikagaiak likidoa botatzen



Ana Laura Duarte

1983, MONTEVIDEO (URUGUAI)



Iruñean bizi da gaur egun. Praktika artistiko kolaboratiboak, esperientzia hibridoak eta instantzia kolektibo eta erlazionalak uztartzen ditu. Elikagaiak eta sukaldaritza lantzen ditu beren izaera multidimentsionalean. Hartzidura erdigunean jarrita, espezieen arteko harremanak eta ekologia jangarriak aztertzen ditu. Horren harira hainbat proiektu garatu ditu, besteak beste, hartzigarrien opera bat, hartzigarrien bira bat Las Polish Fermentos taldearekin, eta, gaur egun, “Hartzigarriak munduaren amaierarako” izeneko beste egitasmo bat. Sareetan: @duarte.ana.laura_

dute, beren barne-egitura aldatu egiten da. Prozesu anaerobiko bat da. Likidoa masa oratuaren gainazalean uzten da, eta bi astez gutxienez hartzitzen uzten da. Horren ostean jan egin daiteke. Baina, noski, elikagai probiotikoa da, bizirik dago, eta gauzak gertatzen dira. Tantaka hasten da, usteldu egiten da, usaindu egiten du, poto batzuek eztanda egiten dute...

Badakit hartzigarrien opera bat ere egin zenuela.

Bai, Montevideon egin genuen behin, eta Uharte Zentroan gero, Ekoiztu programaren barruan. Eraitza ez zen perfektua izan, baina prozesua ederra izan zen. Elkarrekin prestatu genituen hartzigarriak. Oso gogoko dut hori, komunitate efimeroak sortzea gauzak egiteko. Zubi emozionalak sortzen dira, eta hori itzela da, are gehiago kultura emozionalik ez dagoen lekue-tan. Gero mikrofono batzuk eraman genituen, ea zer entzun genezakeen elikagaien eraldaketa horretatik.

Bide horretan segitu nahi duzu lanean?

Uharten, Ekoiztu programari esker, mikroskopio bat erosi nuen, eta horretan sartu nintzen gehiago: bakterioak nola mugitzen diren eta beste. Hurrengo etapa izango da hori dena aurkeztea, mahai bat ipintzea hartzigarriekin, jendeak jatea, eta hori guztia grabatzea. Jolas egitea, bakterioak presente daudela eta haiekiko harremanean.

Zure lehengusu batekin ere egin zenuen proiektu bat honen guztiaren inguruan, Las Polish Fermentos kolektiboa sortuta.

Fermentour bat egin genuen, hartzigarrien tour bat. Italiara, Libanora eta Egiptora joan ginen. Hiri batera iritsi eta astebete ematen genuen han. Lantegi bat egiten genuen, jendearekin hartzigarriak prestatzeko. Hartzidura-prozesua ezaguna da mundu osoan, baina elkarrekin prestatzea, halako modu berezko eta efimeroan, ez hainbeste. Eta lurralde jakin batean aritzea ere oso potentea zen: bertako elikagaiak, bertako ura, bertako gatza. Sosik gabe itzuli ginen, baina esperimentzia hori, ufa.

Zer duzu gogoan bereziki?

Nire amaren familia Libanokoa da, eta lehengusuak eta biok aukera izan ge-

nuen Libanoko Saura altxamendu sozialean parte hartzeko. *Saura* hitzak iraultza esan nahi du. Herri-lapikoe-tan aritu ginen: lehendik antolatuta zeuden egitasmo horiek, baina guretzat garrantzitsua izan zen.

Edo, beste adibide bat, Dar el Nimer kultur zentro palestinarren bitartez lantegi bat eskaini genuen Borj Al-Barajneh delakoan —errefuxiatu palestinarrentzako eremu bat, Beirut hegoaldean—. Adineko andreen proiektu bat zen, Teta’s Kitchen, eta izugarria zen ze hartziduraren denborari buruz hitz egiten ari ginen eta emakume haiek hirurogeita piko urte zeramaten itzultzeko zain: latza izan zen. Halakoek aldatu egiten zaituzte, eta uste dut hartzidura horixe dela azken batean: denok aldatzen gara.

Iruñera itzulita, “Fermentos para el fin del mundo” [Hartzigarriak munduaren amaierarako] proiektua abiatu duzu. Tailer bat ere garatu zenuen La Zurda espazioan.

Bai, tailerraren asmoa zen komunitatea eraikitzea hartzidura-ekintzen bidez, izan errealak zein metaforikoak. Hartzigarriak egiten ikasi genuen, eta, horrela, gure baliabideak zaintzen. Hartzigarriak sortuz, indarrak batzen genituen agente politiko gisa. Gizarte honek behartzen gaitu gure ohitura eta kontzientzia komunitarioa ahaztera eta individualki haztera, pribilegioaren barruan. Gure burua zalantzan jartzeko gaitasunik gabe kontsumitzen dugu. Nire iritziz, eskuekin eta elkarrekin jardutea erresistentzia-ekintza baketsu bat da.

Hitz egingo zenidake La Zurdari buruz?

Bai, oso proiektu polita izan zen, hainbat emakumeren artean sortua. Kultur elkarte bizirik dago, baina espazio fisikoa itxi egin dugu momentuz. Autogestioa konplexua izan daiteke, eta nekeza zen batez ere alokairuari eustea. Hala ere oso harro gaude han gertatu zenaz. Uste dut hiri guztiek behar dituztela era horretako espazioak. Artearen arloan ere asko hazten gara kolektiboan. Ni natorren lekutik, bestalde, komunitatean aritu ezean gauzak ez ziren hain azkar edo erraz gertatzen.

La Zurdan zer egiten zenuten?



Gure intereseko programazio bat antolatu nahi genuen Iruñean, interesgarria maila politikoan zein artistikoan, eta espazio seguru bat nahi genuen, ez soilik guk geuk lan egiteko baizik eta atek zabaltzeko eta gauzak gertatzeko. La Zurda zabaltzen genuen eta egiten ziren kontzertuak, lantegiak, irakurraldiak... Behin karaoke bat egin genuen: erokeria hutsa! Halako gauzak. Eta auzoa, La Milagrosa, asko gustatzen zitzaigun. Jende latino asko dago, migratzaile asko. Gu ondo sentitzen ginen eta ondo hartu gintuen auzoak. Pena handia eman zidan ixteak, baina uste dut onerako izan zela, gu geu eta gure arteko loturak ez erretzeko.

Nik duela gutxi ezagutu dut zure lana, Erraiak programaren barruan eta Uharteko zentroko estudio irekietan: jaten eman zenigun. Catering-ak egiten dituzula esan liteke, baina janari-instalazio kontzeptua egokiagoa da akaso. Mahai batzuk jartzen dituzu, janariz beteta, eta jendeak buffet eran jan behar du, eskuekin edo mahai-tresnekin, batetik bestera mugituz.

Nik ez nuen sukaldaritza ikasketarik egin, etxean ikasi dut dakidana. Nire praktika artistikoak batez ere mahaien, jendearen, batera jatearen eta hartziduraren inguruan ibili dira. La Zurdan ere sukaldean aritzen nintzen, eta horixe izan zen abiapuntua: artearen mundua prekarioa da, eta catering-zerbitzua eskaintzen hasi nintzen batez ere bizibide gisa. Baina gero hasi nintzen mahaiak modu estetikoago baten antolatzen, arreta gehiago jartzen, eta ohartu nintzen nik asko gozatzen dudala, jendeak ere bai, eta asko zaintzen dudala jardun hori. Halako zaintza batetik egiten dut, eta nire buruari ere askatasun gehiago ematen diot beste praktika batzuetan baino.

Nolakoa da janari-instalazioak prestatzeko prozesua?

Luzea. Denbora asko hartzen dit, baka-rik egiten baitut, baina gozatu egiten dut era berean. Lehenik, zer prestatu pentsatzen dut, urte-sasoaren arabera; gero erosketak, kopuruak, eta ondoren hainbat egun ematen ditut sukaldean. Senez lan egiten dut; asko pentsatzen

dut zapoetan, eta gero aldatzen eta nahasten joaten naiz.

Eta mahaien instalazioa?

Espontaneo samarra izaten da, lekura iristen naizenean. Muntaketari tarte eder bat eskaintzen diot. Asko zaintzen dut. Zaporeak, koloreak eta mahai-zapiak tentuz aukeratzen ditut, eta janaria begetarianoa izaten da %100. Eta beganoa eskatzen badidate ere, aukera begano mordo dago. Erabaki politiko bat da hori, eta beti errespetatu nahi nuke.

Baduzu era horretako beste irizpiderik?

Asko erreparatzen diot janaria alferrik ez galtzeari: soberakinik geratuz gero, ez xahutzea. Asko interesatzen zait dena jatea, berdin zait geroago den, edo bihar ramunean, baina ezer ez botatzea. Janaria da, ona dago, eta bihar ere ona egongo da.

Denbora asko eskaintzen diozu pres-taketari, baina gero ordu erdi eska-sean hutsik geratzen dira mahaiak.

Gehien txunditzen nauena hori da, nola irensten den guztia ordu laurdenean. Eta

nik astebete eman dut horretan. Baina ez dit ardura. Jendea hain ase geratzen da, hain... Erraiak-en esaten zuten bezala, gorputza jartzen da, zentzumenak daude martxan. Munduaren eta jendearen gaur egungo egoera kontuan hartuta, sistemek triste nahi gaituzte. Orduan espazio bat egotea non gozatu egiten dugun eta gainera zerbait eraikitzen den, niretzat oso polita da. Denborarekin, ohartu naiz janaria halako egitura bat dela. Niretzat mintzaira bat da, epistemologia alferno bat. Uste dut janariak bitartekari gisa funtzionatzen duela harreman kolektiboetan, lengoaiari dagokionez, zeren bat-batean inoiz elkar ikusi ez duten pertsona batzuk biltzen dira eta mahai berean jaten dute. Hor bestelako espiritu bat sortzen da, ezta?

Eta eskuekin jatea, adibidez.

Feminismoetatik gorputza jartzen dugu etengabe, baina zergatik ez jarri gorputza plazera ematen diguten gauzetarako ere bai? Horixe kentzen ari zaizkigu denbora guztian.

Feminismoak, gorputza... Zer leku du horrek denak zuretzat?

Erabat zeharkatzen nau, subjektiboki,



migrazio-prozesutik hasita, gero lanean eta nire praktikan ere bai. Zehazki gorputza jartzeari dagokionez, Latinoamerikatik nator eta gorputza kalean jarriz gauza mordo bat lortu ditugu. Lehen esan dizudan moduan, oraintxe bertan asko interesatzen zait politikoki aldarrikatzea ezen gorputza jarri behar dugula gozamenerako ere bai. Janariak osatzen duen egitura horretan badaude orobat pentsamenduak, batera jatea, lurraldea, zaporea. Feminismoetan gauza mordo bat gertatzen zaizkigu: eraiki egiten dugu, sareak sortzen ditugu, eta sare horiek bizia salbatu zidaten.

Eta badago beste alderdi pertsonal bat ere bai. Azken batean nik neure amonengandik ikasi nuen sukaldean, haiekin hazi nintzen, eta haiei begira ikasi nuen janaria prestatzen: beste zaintza mota bat da hori. Badago feminismo akademikoago bat, asko errespetatzen dut eta badut aukera horrekin harremanetan egoteko, baina badago beste feminismo bat nire parekoengan, nire amonengan, nik haiengandik ikasi dudana horretan. Orain nik ere eskain diezaiek zaintza-harreman hori beste pertsona batzuei.

Janariak bitartekari gisa funtzionatzen duela esan didazu: sakonduko zenuke horretan?

Esate baterako, Estefanía Santiago lagunak –Argentinakoa da baina Madril bizi da– Mejunje izeneko proiektu batean parte hartzeko deitu zidan. La

Casa Encendida zentroan izan zen, eta nire zatian oturuntza bat egin genuen, Lavapiés auzoko emakume migratuekin: haiek kozinatu zuten, nik ere bai, eta mahai eder-eder bat prestatu genuen. Izugarria izan zen. Halako pertsonen normalean ez zaie arretarik jartzen egunerokoan, ez daude...

Bigarren planoan egoten dira.

Erabat. Eta bat-batean egoera horretan berek prestatutakoari buruz hizketan ari dira, segurtasunez eta jakinduriaz, eta agian ez dute bikain hitz egiten gaztelaniaz baina esaten dizute: tori hau, probatu beste hau. Hunkigarria da. Nik ere migrazio-prozesu bat bizi izan dut eta janariak lagundu zidan parte izaten eta eraikitzen. Maiz, migrazioarekin, ez gara ohartzen jendea nondik datorren zehazki. Berdin du, hemen daude, arazo bat dira, eta orduan janariarekin beste esanahi hauek sortzea zubi oso interesgarria iruditzen zait.

Eta hurrena zer?

Aurten proiektu batzuk nituen, baina Uruguain egon naiz, familiako egoera bitxi bat izan da tartean, eta orain uste dut hemen geratuko naizela bolada batez. Baina bueno, beti zabalik, ea zer gertatzen den. Uste dut mugimendua nire parte dela, eta ez dut inoiz kentzen burutik. Momentuz, uste dut mahaien kontuan sakontzen segitu nahi dudala, eta zorizko aukera gehiago sor daitezela. Hori gustatzen zait gehien. ●



Lan merkatuaren oreka liberala



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Kapitalismoan lana salgai bat da, beraz, ohiko ekonomialarien pentsamoldea jarraituz, eskaintza eta eskariaren arteko orekak bai prezioa, bai kantitatea erregulatu beharko lituzke. Agerikoa denez, hori ez da errealitatean betetzen. Emango balitz, lan harremanak leherraraziko lituzke. Horregatik, ohiko ekonomialariek indar handia jarri dute lan merkatuko berezitasunak azaltzen. Interpretazio horri gehitu behar zaio klase borroka ekuaziotik kanpo uzten duela.

XIX. mende bukaera arte sindikatuak debekatuta zeuden. Atzean logika liberal bat zegoen, elkarte eta sindikatuen existentzia bera ukatzen zuena, merkatu askatasuna apurtzen baitute. Horren adibidea 1791ko *Le Chapelier* legea izan zen, 1864 arte Frantzia indarrean egon zena; Espainiako Erresuman antzeko zerbaite gertatu zen, 1868ko Errege Dekretu batek elkartzeko eskubidea onartu arte. Gerora, lan zuzenbidea garatuz joan zen, langile eta enpresariaren arteko gatazkak kudeagarriagoak bihurtzeko eta erakunde sozialistei indarra kentzeko, besteren artean. Zuzenbide honek *in dubio pro operario* printzipioa mahaigaineratu zuen: zalantzarik izanez gero, langilearen alde egingo dela. Langile eta enpresariaren arteko desberdintasun ekonomikoak eta langileen mendekotasuna aitortzen ziren. Teorian, lan harremanen ideia liberal zorrotza alde batera uzten zuen.

Klase kapitalistak edozein erreminta erabiliko du botere ekonomikoari eusten jarraitzeko, nahiz eta ordena liberala deuseztatu. Lan merkatu liberal bat nahiko lukete

Hori guztia jakinda, nabaria da nola boteretsuek lan harremanen marko liberalera bueltatu nahi duten. Bai enpresa kultura berrien bidez, lan harremanak gehiago individualizatuta, bai sindikatuen funtzioak hustuta, horien helburuak gai ekonomikoetara mugatuta, oso murriztailea den negoziazio-esparru baten barruan. 2018an Confebasken horrela adierazi zuen, sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordetzeari buruzko Errege Dekretuaren proiektuaren inguruan. Azken urte hauetan patrioen joera hori indartzuz joan da, ohikoen laguntzaz: botere exekutibo eta judiziala.

Azpimarragarria da norabide horrek Euskal Herri penintsularrean hartu duen indarra. 2021. urtean, Bilbon,

langile migratu bat lan gatazka batean defendatzeagatik, hemeretzi urteko espetze zigorra eta kalte-ordaina eskatu zitzaizkion. Orain dela gutxi Gijoneko La Suiza gozotegiaren kasuan Espainiako Auzitegi Gorenak epaia argitaratu du, sindikalistak espetxera bidali ditu eta, berriro ere, milaka euroko kalte-ordainketa ezarri die. Azken kasu horretan, edozein lan gatazkan erabiltzen diren oinarriko erremintak, elkarretaratzea egitea eta pasatzen den jendeari egoera jakinaraztea, jo-puntuari jarri dira. Askatasun sindikalaren aurkako eraso oso larria da, sindikatu txiki baten aurka egin dena, baina guztioi eragingo diguna.

Eraso horien sustraian klase borroka dago. Azken finean, patronalen lubakian dauden artean, hasieran aipatutako lan merkatuaren funtzionamendu liberala da helburu utopikoa. Lotsa galdu dutenek, ultraliberalek, argi dute hori aplikatu behar dela. Indartzen ari dira.

Bide-orri horrek, aldiz, ez gaitu leku on batera eramango. Karl Polanyi-k aipatzen zuen bezala, klase kapitalistak edozein erreminta erabiliko du botere ekonomikoari eusten jarraitzeko, nahiz eta ordena liberala deuseztatu. Lan merkatu liberal bat nahiko lukete, eta langile erresistentzia murrizta. Baina horrek neurri autoritarioetara garamatza, ikusten ari garen bezala. Lan-munduan hori dago jokoan, ez da soilik eskubide kontu bat. ●

Zer egin nahi duzu geroan?



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA ETA ERGATIBOLOGOA

PAULA ESTÉVEZ

Badirudi hamasei urteko semea buruhauste handirik gabe ari zaigula batxilergoaren ondotik jarraituko duen bideari buruzko gogoetak egiten. Batean, batxilergoko gai berezien hautaketari buruz hitz egiten digu, bestean, egin beharko dituen pausu administratiboei buruz, galderarik gabe, baieztapen bidez, eta sudurra gehiegi sartuz gero, “dena den *Parcours-up-en formularioa* bete beharko da data hau aitzin” erantzunez, bare.

Orain *Parcoursup* deitzen da etorkizunaren maisua. Webgune bat baizik ez da, Frantziako Hezkuntza Ministerioak kudeatua. Horren bidez, batxilergoaren aitzineko urtean berean, ikasleek aukera dute, lehenik, informazioa jasotzeko eskura egon daitezkeen ikasketa eta presaktakunza programei buruz, bigarrenik, hautatzeko eta baxoaren ondotik non segitzeko asmoa duten adierazteko, hirugarrenik, jakiteko itxarote zerrenda batean zein postutan diren, eta azkenik, eskolen onarpen edo ukoaren berri jakiteko. Orain denentzat bide berak dira eta prozedura berak. Denek informazio maila bera dute. Eta, teoriarik, guztiak hautatzen ahal dute *nahi* dutena. Hots, ikasleek ez dute orain unibertitate-

tan gaindi ibili behar txostenak besapean informatzeko edo izena emateko. Horretan aitzinamendua da eta, kritika anitz ukan dituen sistema horrek, prozesu guztia leku berean zentratzen du, behintzat.

Bizkitartean, sistemak baditu alde ilunak. Seme-alabengan kezkarik sortzen ez duela badirudi ere, hamasei urte besterik ez dituzten gazteei betiere “zer izan nahi zenuke gero?” itauna zuzentzen die eta begirada urrunera jartzen. Anitzen kasuan, burutazio anitz dakartza: “Zein ikasketa hautatuko ditut? Zein gai ditut lehentasunez ikasiko, ez gero petzero gelditzeko, hau da, ahal bezainbat aukera nire alde atxikitzeko? Zein dira nire buruari permititzen ahal dizkiodan ikasketak, gaitegiak, lanak? Zeinetarako naiz ez *txarregia*? Zein ez da karioegia?”.

Gainera, “hartua izan” eta “errefusatua izan” sententziaren menpe jartzen dira, jakin nahian ea norbaitek nahiko ote dituen, eta hain definituak ez dituzten beren buruekin parez pare jartzen ditu, haiengan ez duten konfiantza kolokan jarrita.

Maiz, batere definitua ez duten egitasmo baten arabera hautu eta bazterketa egiten dituzte, den mendreneko

lan esperientzia edo ezagutzarik ukan gabe kasik.

Oroz gainera, aitzina segitzen du selekzioak, emaitzen arabera, maila sozialaren arabera, kokapen geografikoaren arabera. Aukera berdintasuna erlatiboa da.

Hamasei-hamazazpi urte genituelarik, deus gutxi genekien, eta jaten gintuzten arrangurak arinak eta bakan-bakanak ziren: salbu galdetzen zigutenean zein lan egingen genuen *berantago*. Berehala hautatu behar izan balitz bezala, kezka bat sortzen zigutela orduan ingurukoek, ez baikenuen ideia izpirik horretaz, baikenekien ez geniola gure buruei baimentzen ahalko edozein gauza, batez ere, zerbait hautatzeko beste hainbat gauzari uko egitea suposatzen baitzuen, eta atzerabiderik ez ukaitez ere ginen beldur. Batzuetan, ingurukoek erran zigutenaren arabera hautatuko genuen.

Agian, geure buruei hitz eman genien gure haurrak ez genituela hain goiz hautatzera akuilatuko, libre utziko genituela eta lasai. Ez da guregatik, baina ez da hala gertatzen ari... Saiatu beharko dugu isilik egoten, bederen, formularioa ez dezaten guri entzuten arabera bete. ●



SUKAR HORIA

Ingreso altuko eremua

Ekaineen jarri du martxan Bilboko Udalak Emisio Gutziko Eremua, iraile-ra arte isunak jartzen hasiko ez bada ere. Neurri horrek auto zaharren sarrera mugatuko du Bilboko zabalguneko burgesera astelehenetik ostiralera. Hasiera batean 2000. urtea baino lehen matrikulaturiko gasolinazko autoak edo 2006 baino lehen matrikulaturiko dieselak ezingo dira sartu, baina neurriak zorrotzuz joango dira, eta 2030erako C edo ECO kategoriako kotxeak bakarrik sartu ahalko dira.

Neurri horren helburu teorikoak kutsadura eta klima aldaketaren aurkako borroka dira, baina dagoeneko hainbat kritika jaso ditu mugimendu ekologistaren partetik. Alde batetik, neurri horrek auto ekologikoaren mitoa indartzen du, kotxe batzuk garbitzat hartzen baititu. Alta, *auto* eta *ekologiko* kontzeptuak bateraezinak dira. Adibide bat ematearren, nahiz eta motorrak partikula kutsakorrik ez isuri, pneumatikoen marruskadurak hainbat partikula kutsakor isurtzen ditu; konbustioiko autoek baino dezente gehiago, gainera, baterien pisuaren ondorioz. Horrez gain, osasunarentzat oso kaltegarriak diren NO2 partikulen kasuan, auto elektriko batek konbustioiko batek isurtzen dituenen %80 isurtzen ditu, eta, beraz, isurimurrizketa oso txikia dakar.

Antzeko zerbait gertatzen da berotegi efektuko gasekin; auto elektrikoek ez

dute zuzenean CO2rik isurtzen, baina elektrizitatearen zein autoaren produktioan bertan hainbat CO2 tona isurtzen dira, beste hainbat ondorio ekologiko negatibo ekartzeaz gain. Gainera, autoak hirien espazio publikoaren ehuneko handia bereganatzen du (%70 inguru), eta ingurune berdeak izan zitezkeenak asfaltopean itotzen ditu.

Finean, pertsona bat garraiatzeko 1.500 kilogramoko aparailu bat mugitu behar izatea ez da inoiz ekologikoa izango, autoa berdez marrazten badugu ere.

Beste alde batetik, neurriaren kutsu klasistak ere kritikak jaso ditu. Izan ere, auto zahar baten jabea Bilboko zentroa garraio publikoaz hurbildu ahal bada, zergatik ezin du gauza bera egin Iberdrola dorrera doan exekutibo batek? Kotxea gero eta gutxiagorentzako pribilegio bat izango da, baina ez da hirian hartzen duen espazioa mugatuko.

Horren aurrean ekologistok zer proposatzen dugu? Bada, garraio publikoa indartzea, autoei lekua kentzea bizikleta eta oinezkoentzako eremuak handituta, eta kotxeen sarbidea beharrezko arabera mugatzea (bizilagunak, mugikortasun arazoak dituen jendea...), eta ez kotxe-gidariaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

Emisio Baxuko Eremuak nahi ditugu, ez Ingreso Altuko Eremuak. ●

CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Jogurtak ordainetan

Nire lehendabiziko poema liburua argitaratu nuenean errezitaldi bat ematea eskaini zidaten unibertsitate batean. Musikariak dirutan kobratu zuen eta niri Jorge Oteizari buruzko liburu bat eman zidaten, hartu ez nuena, baneukalako etxean. Horixe izan zen onartu ditudan eskaera onartezinen lehendabizikoa. Izan zen ere esnekiekin ordaindu nahi izan zidaten ipuina, hainbat bertasio egin ondoren eta haztegia bisitatu ondoren argitaratu ez zutena. Eta egin ditut gauza pila bat doan, edo gazta baten truke, eta oso gustura gainera; baina eskaerarik lotsagarrienak beti egin dizkirate erakunde publikoetatik. Lehengoan autoaren gorpila leher-

tu nuen Iruñerako bidean. Opor orduak hartu nituen bi saio egiteko ume batzuekin, nik hasitako ipuin bati segida eman ziotelako. Esan gabe doa: ez nuen dirurik jaso. *Tote bag* bat eta boligrafo bat. Parkinga nire kontu; kilometrajea ere bai. Kostatzen zait eskaerei ezetz esatea, eta areago ordainsariari buruz galdetzea. Ez galdetzeak arazoa desagerraraziko balu bezala. "Euskal artista larre motzean bizi da eta halaxe segitu behar omen du, bokazio duena egiteko graziaren truke". Esaldia Amagoia Gurrutxagarena da, Lanarteako koordinatzailearena, arazoak aipatzea horiek konpontzeko lehen urratsa dela badakienarena. ●

Industria-politikaren egia deserosoa



ROSER ESPELT
EKONOMIALARIA

Mundu mailako ekonomiak gorakada nabarmena izan zuen COVID-19aren ostean. Orain, baina, gorakada hori agortze-fase batera heldu den zantzuak agerikoak dira, krisi klimatikoak nabarmen baldintzatuta: munduko potentzia nagusien ekonomiaren hazkunde-tasa murrizten ari da, produktibitatea geldirik dago eta inbertsio berriztagarrien programa anbiziotsuak bertan behera geratzen ari dira errentagarritasun faltagatik.

Testuinguru horretan, diskurtso adaketa egon da: merkatu librearen jada ez da arazo guztien konponbidea, *laissez-faire* dogma Milei bezalako pertsonaia-tara mugatuz doa. Badirudi adostasun berria ari dela sortzen, ekonomian esku hartze publikoaren aldekoa, hain zuzen. Ezker-eskuin, industria-politika itzultzen ari da. Oro har, merkatu librearekin beti kritikoak izan eta ekonomiaren kudeaketa publiko eta komunitarioa eskatzen dugunontzat, dudarik gabe, berri ona litzateke, baina, titularrez harago, edukiari erreparatu behar zaio, industria-politika guztiak ez baitira berdinak.

Pasa den urtean Hego Euskal Herriko enpresek 500 milioi euroko materiala ekoiztu zuten Espainiako Armadarentzat

Lehen adibidea, Next Generation funtsena: kapital handietara bideratu da, baina ez dago froga argirik maila produktibo eraginik izan duen baieztatzeko. Dena den, balizko keynesianismo ekologista berria zirudiena, gerra-keynesianismo klasikoagatik ordezkutzen ari dira. Europako Batzordearen defentsa-industriarako estrategia berria, horren erakusgarri: besteak beste, defentsara

bideratutako merkataritza barne mailan sustatzeko helburua ezartzen du, ekoiztako materialen %50 Europar Batasunaren barruan saleros dadin 2030. urtea baino lehen.

Xake-taula horretan, non kokatzen gara? Bada, Euskal Herria esportatzailea izateagatik nabarmetzen da. Esportatzen dugunaren herena Alemania eta Frantziara doa, hain zuzen, gerra-ekonomiaren sustatzaile nagusiengana eta, zuzenean edo zeharka, defentsa-industriaren hornitzaile diren sektoreetara. Aeronautika, siderurgia eta ibilgailuak dira Alemaniari saltzen diogunaren erdia eta Frantziari saltzen diogunaren herena. Horrekin batera, %10 armak eta munitzioa dira. Hori gutxi balitz bezala, Delàs Bakerako Ikerketa Zentroaren arabera, pasa den urtean Hego Euskal Herriko enpresek 500 milioi euroko materiala ekoiztu zuten Espainiako Armadarentzat. Horrenbestez, Euskal Herriko industria-politika diseinatzeak egia deseroso horri aurre egitea eskatzen du eta, horren arabera, erabakitzea eskalada belizista honetan nola kokatu behar garen. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com



ARGIA

BABESTEKO

ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langleiona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAN jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiako



NOLA ERABILI DA ADIMEN ARTIFIZIALA EUSKARA ZABALTZEKO?

Asko dira teknologia euskaratik lantzen ari diren ikerlariak; horien artean, Naiara Perez EHUko HiTZ Hizkuntza Teknologiako Zentroko ikerlaria, Itziar Cortes Elhuyarreko ikerlaria eta Eli Pombo lametzako kudeatzailea. Euskarak adimen artifizialean daukan lekuaz, aukerez, erronkez eta zailtasunez mintzatu dira, besteak beste.

 OLAIA L. GARAIALDE

Denen ahotan dago eta uste baino gehiago erabiltzen da adimen artifiziala egunerokoan. Baina zer da? “Definizio simple bat ematearren esanen nuke matematikaren eta informatikaren arteko arlo bat dela, zeinetan ordenagailuei gizakien gaitasunak ematen zaizkien; hala nola hizkuntza gaitasuna, ikusmena, mugimendua...”, azaldu du Naiara Perezek. Adimena zehatza edo orokorra izan daiteke. Hau da, zehatzak ekintza batzuetarako balio du; adibidez, tunel batera sartu eta autoko argiak automatikoki pizteko edota ahots laguntzaileei gauzak galdetzeko. Orokorra aldiz, gizakiaren pareko zerbait da eta ekintza bat baino gehiago egiteko gai da; horren adibide da, Open AI enpresaren ChatGPT solaskide artifiziala.

Sare neuronalen bidez funtzionatzen du adimen artifizialak. Konputazio tres-

nekin gizakien nerbio sistema eta ikas-teko modua imitatzen saiatzen dira sare neuronalak. Horretarako, informazioa eman eta ikasketa algoritmoak diseinatu tresnak trebatu behar dira patroiak ikas ditzaten. “Oraindik ez gara heldu, baina hasi gara benetan planteatzen ea datozen urteetan adimen artifizialak gizaki baten adimena ordezkatu dezakeen”, esan du Perezek.

Hala ere, ohar bat egin du Pombok, eta gogorarazi du adimen artifiziala tresna bat dela: “Ez nuke gure burua liluratzen utziko. Teknologia zentzuz, benetan baliagarriak diren erabileretarako eta modu etikoan erabili behar dugu”.

Adimen artifiziala sektore askotan aplikatu daiteke; horien artean hizkuntzaren prozesamenduan. Arlo horretan sartzen dira; besteak beste, hizkuntza idatzia ezagutu eta bat-bateko itzulpenak egiten dituzten sistemak; ahozko

hizkuntza jaso eta idazten dutenak eta testuak ahots bihurtzen dituzten sistemak. Perezen arabera, azken urteetan Euskal Herrian “asko” dira hizkuntza teknologian eta garapenean ikertzen ari direnak, eta sektore “indartsu bat” dago: “Guretik sortzen ari gara”. Hortaz, egon badago euskaraz ikertzen duen sektore bat, baina teknologiaren zurrumbilo horretan guztian zein da euskarak daukan lekua? Zein onura eta traba ditu? Zein zailtasun eta aukera ditu euskarak?

“Adimen artifiziala inguratzen gaituen errealitatea da, eta euskarak hor egon behar du. Bestela, aukerak galtzen ditu presentzia digitalean”, nabarmendu du Pombok. Gaineratu du euskara beste lekuetara zabaltzeko aukera bat izan daitekeela. Bat egin du horrekin Perezek, eta gogorarazi du proiektio handia duten tresnak, ChatGPT kasu, enpresa handien esku egon ohi direla: “Ezin gara



enpresa handiek eginen dutenaren zain gelditu. Google eta Microsoft bezalako enpresen lehentasuna ez da munduko hizkuntza guztiak kontuan hartzea. Horrelako enpresak bezero gehien izanen dituzten hizkuntzetan jartzen dute arreta; hau da, hizkuntza hegemonikoetan". Hala ere, horrelako enpresetan euskara ere txertatzen hasi direla dio.


Zentzu horretan euskaraz lanean ari diren ikerlariak "borrokan" ari direla sentitzen du Pombok: "Trena galdu nahi ezean eta lekua egin nahian gabiltzala sentitzen dut, baina ez naiz ezkorra. Zailtasunak aparte, uste dut aldeko haizea ere badugula". Erakunde publikoen eta herritarren partetik gauzak egiteko "borondate handia" ere badagoela dio. Gainera, Pomboren arabera, enpresa handiek egiten dituzten aurrerapausoen kontra lehiatzea "ezinezkoa" da: "Gurean jarraitu behar dugu, behar diren gauzak zentzuz egiten eta frustratu gabe".

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA

Teknologia, oro har, datuetan oinarritzen denez, Pomboren ustez, informazioa enpresa handien esku ez uzteko "modu burujabe" kudeatu behar da: "Software libreak aukera ematen dizu zuk egindakoa besteek hobetzeko, eta tokiko ekonomia indartzen du". Datu horien erabileraz mintzatu, eta "zentzuz" erabili direla ohartarazi du Cortesek. Horregatik, Elhuyarren ez dituzte bezeroen datuak erabiltzen tresnak entrenatzeko: "Adi egon behar gara, ez dugu letra txikia irakurtzen edo ez digute abisatzen eta nahi gabe sistema horiek elikatzen ari gara". Datuen jatorrian ere azpimarra egin du Perezek, eta eredu libreetan alderdi etikoa "garbiagoa" dela esan du.

Tokian tokiko beharretatik eta nahietatik lan egiteak duen inpaktua ere azpimarratu dute. "Guk egiten badugu, gure intereseko gaiak duten edukia sortuko dugu", esan du Perezek. Gaineratu du "punta-puntako teknologia" sortzea Euskal Herriko sektore teknologikoa eta ikerketa sektorea "elikatzeko" lagungarria dela: "Modu irekian lan egiten badugu hemengo ikerketa zentroen arteko elkarlana sustatu dezakegu".

Asko dira teknologia garatzeko tresnak besteen eskura jartzen dituztenak. Horien adibidea da EHUko HiTZ Hizkuntza Teknologiako Zentroak sortutako Latxa. Hizkuntza eredu handi bat da, eta horrelako ereduak testu segida bat ematen zaienean, hitz probableena



“Trena galdu nahi ezean eta lekua egin nahian gabiltzala sentitzen dut, baina ez naiz ezkorra. Zailtasunak aparte, uste dut aldeko haizea ere badugula”

Eli Pombo, lametza

ematen dute. "Laxak bere horretan ez du deus egiten, beste aplikazioak sortzeko motor bat da", azaldu du Perezek. Adibidez, zuzentzaile ortografikoak, galderak erantzuteko aplikazioak eta irakaskuntzan ariketa automatikoak sortzeko balio du: "Guk, adibidez, Latxa erabiltzaile moduan sartu dugu *Egunean Behin* jokoan erantzunak emateko". Sarean eskuragarri dago eta edonork deskargatu dezake.

INFORMAZIO FALTA, ZAILTASUN

Datuak dira adimen artifizialaren altzorra. Izan ere, tresnak trebatzeko kalitatezko ahalik eta datu gehien behar dira.

Adibidez, ahotsa entzun eta zuzenean transkribatzen duen sistema bat sortzeko grabazio eta transkripzio asko behar dira. Elkarrizketatutako ikerlariak nabarmendu dute datu kopuru handiak lortzea dela euskarak daukan zailtasun handietako bat. "Hizkuntza hegemonikoekin alderatuta, euskarak ez dauka hainbeste eduki, eta orduan zailagoa da emaitzak lortzea", esan du Perezek. Bat egin du horrekin Cortesek; hala ere, uste du beste hizkuntza gutxitu batzuekin alderatuta euskaraz eduki "gehiago" dagoela.

Egungo tresna gehienak euskara batuan trebatuta daude; hala ere, badira euskalkiak lantzen dituzten tresnak ere. Batua itzulpen zerbitzua, esate baterako, adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarrituta dago eta Vicomtech teknologia zentroak egindako eta Euskaltelek, Mondragonlinguak eta EITBk sustatutako proiektua da. Itzulpen zerbitzu horrek euskara batua, frantsesa, gaztelania, ingelesa eta bizkaiera ezagutzen ditu. Horrez gain, euskararen eta hizkuntza horien guztien artean itzulpenak egiteko gai da. "Euskalkien kasuan askoz zailagoa da datuak lortzea; euskara batuan kostatzen bada, pentsa bizkaieran edo lapurteran", esan du Perezek. Euskalkie dagokienez, arau faltak eta zonalde bakoitzean dauden aldaerek prozesua zailtzen dute: "Ez dago bizkaiera baturik, orduan Getxoko, Gernikako edota Ondarroako euskalkiekin elikatzen badugu makina, oso zaila da pratoi bat sortzea".

Zailtasunak zailtasun, horrek ez du



Eskerrik asko, eta ez da ni zoriontzeko, baizik eta fakultateaz ari.

Elhuyarrek, besteak beste, Elia eta Aditu tresnak ditu. Elia itzultzaile neuronalak testu soilak eta dokumentu formatudunak itzultzen ditu segundo gutxitan. Aditu plataformak aurrez grabatutako audio eta bideo fitxategiak prozesatu eta haien transkripzioak eta azpigituluak sortzen ditu.

esan nahi Euskal Herrian kalitatezko edukia sortzen ez denik. Izan ere, Cortesek nabarmendu du “asko” zaintzen dela euskaraz sortzen den edukia: “Dauzkagun datuekin oso emaitza txukunak lortzen ari gara”. Gaineratu du adimen artifizialak beste ate batzuk ireki dizkiola euskarari, sistema zaharrek “mugatuta” zeudelako. Azaldu du lehenengo sistemekin ez zirela iristen “benetan baliagarriak” diren sistemak sortzera eta eskuragarri jartzera.

Praktikara eramanda itzulpen automatikoarekin egindako aurrerapausoak azaldu ditu: “Lehen ez zuen ongi funtzionatzen, baina orain bai”. 2007an Elhuyarrek eta EHUK Matxin –lehenengo itzultzaile automatiko librea– sortu zuten. Garai horretako sistema ez zegoen adimen artifizialean oinarritua: “Euskararen kasuan, horrek ematen zituen emaitzak ez ziren hurbiltzen gaur egun ditugun emaitzetara. 2016ra arte ez genuen lortu euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenak egiteko kalitatezko sistema bat”. Egun, Elia itzultzaile automatikoa izenez ezaguna da.

Aldiz, beste hizkuntza batzuen kasuan, esate baterako, gaztelaniaren eta galegoaren arteko itzulpenak egiteko, gaur egun oraindik adimen artifizialean oinarritzen ez diren sistema zaharrak erabiltzen dira: “Gertuago dauden edo antzekotasunak dituzten hizkuntzetan oso emaitza onak lortzen ziren. Euska-

“Ezin gara enpresa handiek zer eginen duten zain gelditu. Google eta Microsoft bezalako enpresen lehentasuna ez da munduko hizkuntza guztiak kontuan hartzea”

Naiara Perez, HiTZ zentroa

raren kasuan deklinabideak daude, aditzak desberdinak dira eta hitzen ordena librea da. Horrek zailtasunak sortzen ditu hizkuntza batetik bestera pasatzeko erregelak sortzeko. Adimen artifizialari esker gaur egun ez dago ia mugarik”.

KALITATEA ZAINTEKO TRESNAK
Teknologia geroz eta gauza gehiago

egiteko kapaza denez, “zentzuz” jokatu behar dela uste du Cortesek. Bestela, euskara zabaltzeko tresna izan beharrean, kalterako izan daitekeela dio: “Euskaraz sortutako edukia itzultzeko erabiltzen badugu, nolabait euskaraz sortutako edukiari zabalkundea ematen ari gara. Baina itzultzaile automatikoa erabiltzen badugu euskaraz ez dagoena euskarara pasatzeko eta ez badugu begiratzen itzulpena ongi dagoen, ez diogu mesederik egiten euskarari”. Gaineratu du horrek epe ertainera “kalitate gutxiko” testuak izatea eragingo duela: “Testu horiek erabiltzen baditugu etorkizuneko sistemak entrenatzeko, euskararen kalitatea baxua izango da”.

Sortzen den edukia berrikustez gain, zer egin daiteke kalitatea bermatzeko? HiTZ Hizkuntza Teknologiako Zentroak zenbait bide hartu ditu horretarako. Lehenik, Creative Commons lizentzia daukaten euskal hedabideetako edukiak erabili dituzte. Datu horiek nahikoak ez direnez, artxibo handietara ere jo dute eta bertako edukia filtro batetik pasa. “4.000.000 dokumentu lortu ditugu, baina ChatGPT bezalako tresna bat sortzeko ez da nahikoa; hala ere, emaitza onak lortu ditugu behintzat”.

Beste adibide bat Elhuyarrek dituen Elia, Aditu eta TTS tresnak dira. Adimen artifizialean oinarritzen dira hirurak. Elia itzultzaile neuronalak testu soilak eta dokumentu formatudunak itzultzen ditu segundo gutxitan. Aditu plataformak aurrez grabatutako audio eta bideo fitxategiak prozesatu eta haien transkripzioak eta azpigituluak sortzen ditu. TTS neuronalak testua ahots bihurtzen du. Elhuyarren teknologiek euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa ezagutzen dituzte. Horrek esan nahi du Elia, Aditu eta TTS sei hizkuntza horietan erabili daitezkeela. Elhuyarren azken berrikuntza da: “Ikusi dugu bezeroak eleaniztunak direla, eta gure teknologia erabili nahi dutela euskara ez den beste hizkuntzetan. Euskara ardatz izanik tresna bakarra hizkuntza gehiagotan erabili dezakete”.

Tresna horiek guztiak euskara “gehiago” zabaltzeko lagungarriak izan daitezkeela uste du Cortesek: “Ez dugu euskaraz sortzeko beldurrik izan behar. Jende gehiagorengana heldu nahi badugu, itzultzaile profesionalz gain, tresna ugari ditugu gaur egun”. Elhuyarren, adibidez, gehienetan euskara hutsean



Elhuyarrek zientzia.eus webgunean itzultzaile neuronal integratuta dauka. Oharra jarria du: "Euskaraz idatzitako testua eta Eliaren bidez automatikoki itzulitakoa, ondorengo gainbegiraturik gabe". Adibide honetan testua katanalez ageri da.

sortzen dituzte gauzak, baina Euskal Herritik kanporako gauza batzuk itzultzaile automatikoarekin itzultzen dituzte. Beti ere erabiltzaileari ohartaraziz eta jatorrizko bertsiara jotzeko aukera eskainiz.

Adibidez, zientzia.eus atarian itzultzaile automatikoa integratuta daukate. Horrek esan nahi du pertsona batek Interneten jartzen badu *Como xurdiu o sistema solar?* –Nola sortu zen eguzki-sistema? galegoz–, zientzia.eus atarira iritsi daitekeela. Webgunean, albo batean, beste hizkuntzetan ere irakurtzeko aukera eskaintzen du, baita jatorrizko bertsiara ikusteko ere. "Argi dugu irakurleak jakin behar duela itzultzaile automatikoak egindako testu bat dela, eta ez benetan pertsona batek egindakoa", esan du Cortesek.

ARGIAk duela gutxi Itzulinguru proiektuan hartu du parte, eta zientzia.eus webguneak bezala, itzultzaile automatikoa integratu du Soziolinguistika Klusterrak eta EHUKo Innoklab ikerketa taldeak proposatutako esperimentuan. Proiektu horretan ondorengoek ere hartu dute parte: Elhuyar, AEK, Orai

“Erabiltzen badugu itzultzaile automatikoa euskaraz ez dagoena euskarara pasatzeko eta ez badugu begiratzen itzulpena ongi dagoen, ez diogu mesederik egiten euskarari”

Itziar Cortes, Elhuyar

adimen artifizialeko zentroa, Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Hekimen.

Itzultzaile automatikoa erabili arren, ez dute dena tresnen esku uzten. Elhuyarreko kideek edukia birpasatzen

dute kalitatea bermatzearren. Batzuetan ikerlariak egiten dute lan hori, eta beste batzuetan itzultzaile profesionalak behar dira automatikoarekin ez duzulako lortzen kalitatearen %100. Gainera, ezin duzu edozeinen esku utzi testu bat jakiteko ona den edo ez, denok ez ditugulako irizpide berak”.

Gaur egun dauden tresna eta baliabide horiek guztiak hizkuntzak ikasteko lagungarriak izan daitezke. Halere, zer gertatzen da ikasteko gogoa piztu beharrenean, hizkuntza ikasteko nahirik ez izatea eragiten badute? Perezen arabera, hizkuntza bat ikasteko nahia edo beharra komunikatzeko beharrari lotuta dagoen arren, ez da soilik horretara mugatzen: “Euskarari dagokionez, ez dut uste inork soilik komunikatzeko ikasten duenik. Hautu bat da eta beste gauza asko daude inguruan. Benetan, euskara, frantsesa, arabiera edo edozein hizkuntza ikasi nahi baduzu horrelako tresnek bidea erraztuko dizute, baina itzultzaile batek ez dizu emango euskaraz zuzenean irakurtzeak ematen duen plazera”. ●

BABESLEA:

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.


Prezioa **12 €**

TRAKTOREEN PROTESTAK HASI ZIRELA BOST HILABETE

Zerekin egiten dugu amets?

Elikagaien merkatu globalizatuan bira egiteaz harago

Bost hilabete bete dira otsailaren 6an traktoreen mobilizazioak hasi zirenetik. Mirene Begiristainek eta Isabel Alvarezek ekofeminismoaren betaurrekoak jantzita aztertu dituzte mobilizazio hauek eta fokutik kanpo geratu diren laborariak eta aldarrikapenak ekarri dituzte lehen lerroa artikuluko honetan.

 MIRENE BEGIRISTAIN ZUBILLAGA ETA ISABEL ALVAREZ VISPO



Azkenaldian ikusten ari gara gero eta zarata gehiago iristen dela landa eremura. Baina, orain arte, landa eremuko lurralde materiala –lurra, ura, biodibertsitatea...– eta immateriala –jakintzak, kultura, harremanak...– ez dira estimatuak izan, ezta baloratuak ere. Landa-ingurunea historikoki mespretxatua izan da iruditeria sozialean; irten beharreko lekua, ekarpenik egingo ez balu bezala; eta, bitartean, hiri-ingurunea “garapenerako” itsasargi bihurtu da.

Eraikuntza sozial horretaz ohartzea funtsezkoa da azken hilabete hauetan landa eremuan zer gertatzen ari den jabetzeko, eta hainbat pertsonen haserrea zergatik piztu den ulertzeko. Dena den, sentimendu horiek ulertzeaz gain, mobilizazioek eragindako zarata eta txinpartetatik harago begiratzeko gai ere izan behar gara, eta betaurreko ekofeministak jantzita aztertu zenbateraino diren eraldatzaileak mobilizazio horiek, bai edukian eta forman.

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA EZ DA ZALANTZAN JARRI

Lehenengo ebidentzia da bat-batean landa-ingurunea protagonista sentitzen dela; une batzuetan, behintzat, fokua azpian sentitzen da, eta historikoki etengabeko periferia izan ondoren erdigunera pasa da. Horrek aukeren leiho baten aurrean egotearen sentsazio logikoa sortzen du. Prekarietate handiko testuinguru batean, lehen sektorea zorrez eta burokrazia itota egonik, denek behar dute begiratuak izatea, arreta behar dute, baina gure buruari galdetu behar dio: norantz doa arreta? Zer ari da nabarmentzen aukeren testuinguru honetan? Benetan aldatzen al dira zentroak edo dekoratuak aldatzen dira soilik?

Zentzu horretan, bigarren ebidentzia da mobilizazioen (eta sektorearen berraren) erdigune nagusia Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) izan dela. Politika horren jatorria, gerraosteko testuinguruan, Europako kontinenteari elikadura-autonomia sortzen saiatzea izan zen. Gaur egun, merkatua ardatz duen tresna bat da; sistema guztiz bidegabean oinarritutako merkatu globalizatua da, non txikiak beti galtzen duen. Mobilizazioetan ez da inoiz entzun zentro hori aldatzeko eskaerarik; birak emateari utzi gabe, zorabioa ahalik eta txikiena izatea bilatzen da. Bai, diru publikoa da, Europako aurrekontuetako partidari handiena (EBko aurre-

Asko hitz egin da mobilizazioetan burokraziak dakarren zamaz. Nortzuk arduratzen dira burokrazia horretaz egunero?

Beste herrialde batzuetatik datozen ekoizpenen sarrera mugatzea eskatzen duen sektore berak, egunero esportatzen du

Elikadurak oinarrizko adostasun soziala duen aliantza izan behar du

Egun bada oraindik figura bat nekazaritzan, “familialaguntza” deritzona, doan eta inolako eskubiderik gabe lan egiten duena

kontuaren %30 inguru) horretara bideratzen da; baina, gaur egun, partida hori logika kapitalista batek zuzentzen du, eta lur gehien duenak gehiago jasotzen du. Lur-jabe handiek irabazten dute; eta, bitartean, ertainak bizirik irauten saiatzen dira eta txikiak pastelaren banaketatik kanpo geratzen dira. Eta jabetza, salbuespenak salbuespen, gizonezkoen eskuetan dago gehienbat oraindik ere. Izan ere, laguntzen %30 soilik joaten dira emakume ekoizleen eskuetara –ezinezkoa da, gaur gaurkoz, genero ez-bitarreko pertsonen datuak lortzea–, eta, gainera, jasotzen dituzten kopuruak baxuagoak dira, aukerazten dituzten ekoizpen ereduak eta eskala direla eta.

NEKAZARITZA POLITIKEZ HITZ EGITEN DA, ELIKADURA POLITIKEZ HITZ EGIN BEHARREAN

Benetako eraldaketa egiteko, erdigunean jartzen dena aldatu behar da. Erdigunean elikagaiak ekoizten dituzten lurraldeek eta pertsonak egon behar dute, eta ez merkatuak bultzatzen dituen lehiakortasuna eta lurren eta “baliabideen” (mo-

netarioak zein fisikoak) akaparamendua. Merkatuak bultzatzen du atzerritarra inbaditzaile gisa ikustea, kontuan hartu gabe mugak bi norabidetakoak direla, eta beste herrialde batzuetatik datozen ekoizpenen sarrera mugatzea eskatzen duen sektore berak, egunero esportatzen dituela bere produktuak kontrako norabidean; adibidez, Marokotik datozen produkzio askok Espainiako Estatuko kapitala dute akziodun nagusien artean, eta han produzitzeko arrazoi bakarra kostuak minimizatzea –lanekoak, ekologikoak, fiskalak...– eta etekin pribatuak maximizatzea da.

Era berean, kapitalak proposatzen duen merkatuaren inguruan biraka ibiltzeak, bizitzaz ahaztea dakar; dakar kapitala elikatzen duen kateari nola eusten zaion ez jabetzea eta alde batera uztea. Dakar ez jabetzea zer eskuk biltzen duten produktua –askotan, arrazializatutako pertsonak eta gehiegitan baldintza txarretan eta edo esklabotzan egiten dutenek–. Ez dugu aintzat hartzen gaur egun badela oraindik figura bat nekazaritzan, “familialaguntza” deritzona, doan eta inolako eskubiderik gabe lan egiten duena. Erabat normalizatua dugu, nahiz eta funtsezkoa den elikagaien sektorean.

Halaber, ez da kontuan hartzen lurra- ren zaintzari lotuago dauden eta bizitza erdigunean jartzen duten ekoizpenak, gehienetan, ez direla NPBen hartzaile, edo kopuru iragarriak jasotzen dituztela, ikusezinen artean ikusezinen bihurtuta. Haiei inork ez die begiratzen, ezta orain ere; haien zentzu ez dago mobilizazio hauetan aukeren leihorik. Izan ere, mobilizazio horietan Nekazaritza Politikez hitz egiten da, Elikadura Politikez hitz egin beharrean; eta elikagaiak beste salgai bat gehiago izatera murrizten dira, eskubideen ikuspegia barne hartzen duen begiradarik gabe, elikadura eta nutrizio egokirako eskubidea oinarri hartu gabe; edo zaintzaren ikuspeirik gabe, elikadura-katea zaintzaren sostenguen parte dela ulertu gabe, iceberg kapitalistaren alde ikusezinean hondoratuta. Eskubideez eta zaintzaz hitz egin ahal izateko, pertsonak eta planeta errespetatzen dituzten ekoizpen-ereduak izan behar dira oinarri.

EMAKUMEEK EGITEN DITUZTEN LAN IKUSEZINAK

NPBaz gain, asko hitz egin da mobilizazioetan burokraziak pertsona ekoizleentzat dakarren zamaz, gero eta handiagoa denaz. Puntu horretan, geure buruari galde diezaiokugu: nortzuk arduratzen



Argazkian, otsailaren 19an laborari agroekologikoen Donostian, Gipuzkoako Aldundiaren aurrean egin zuten mobilizazioa.

dira burokrazia horretaz egunero? Historikoki, baserrietako emakumeek entzun behar izan dute ez zirela nekazariak, “paperak bakarrik egiten zituztela”. Orain, erdigunera ekarri da eskaera, burokraziaren lan karga borondatezko lanez eraman ezina bihurtu denean, eta dakarren kostuak ikusgarri bihurtu denean; baina, historikoki, etxeetako espazio pribatuan eta inolako ordainik eta errekonozimendurik gabe sostengatu dutenei (berriro) ezikasiarena egin zaie. Eskaera garrantzitsu bihurtu den uanean, lan hau ondo ezagutzen dutenen eta lan hori pairatzen dutenen ahotsak ia ez dira protagonista izan.

Tokikoa ere izendatu da mobilizazioetan, gertuko merkaturatze kanalak, zero kilometroa. Denok dakigu nor arduratu den produktua merkatura eramateaz, eskaerak jaso eta prestatzeaz... badakigu kudeaketa eta merkaturatze lanez zenbat denbora eskatzen duten, badakigu oso garrantzitsuak direla edozein proiektutan. Datu bat: Duina proiektuak, Gipuzkoa eta Bizkaiko baratzezaintza ekologikoko proiektuen kostuak eta denborak neurtu dituen azterlanak, zehaztu du merkaturatze eta kudeaketa/burokrazia-lanek, batez beste, denboraren ia %30 hartzen dutela zeregin guztiekiko.

Asko hitz egiten da ekoizpen bideragarriak lortzeaz; baina, bizigarriak al dira? Bideragarritasun monetarioaz hitz egin behar da, bai, baina baita proiektuak bizigarriak ote diren ere, eta horiek sosten-

Mobilizazioetan gutxiengo ikusezina da agroekologia praktikara eramaten ari den laboraria, begirada kolektibotik lantzen dituen lurraldeari lotutako proiektuak, inguruaren zaintzari lotutakoak, elikadura osasuntsua eta eskubideen aldarrikapena

gatzen dituzten lan guztiak ikusgarriak ote diren eta baloratzen ote diren. Horri buruz hitz egiteak, honako hauei buruz hitz egitea dakar: zein zeregini ematen zaien balioa; nola diren emakume baserriarren eskubide ekonomiko eta ez-ekonomikoak, luraren titulartasuna, historikoki nork kotizatu duen eta horrek sortu dituen inpaktuak; nork hartu dituen bere gain familiako zaintzak bere osotasunean, hau da, “familia nekazari-tza” txalotuaren barruan gertatu diren desberdintasunak; nola horrek guztiak hainbat emakume landa eremutik irteera bultzatu dituen, euren bizitzak norabide jakin batean eraiki ahal izateko; edo baita ere, motozerra bat hartu nahi izan duten askok edo uanean uneko egurzalea-

rekin tratuak egitera joan direnek gainditu behar izan dituzten estereotipoak –eta oraindik gainditu behar dituztenak!–.

Horretaz guztiaz hitz egiteak dakar etorkizuneko gure elikadura, lurraldea, landa-ingurunea zeinen esku utzi nahi dugun jabetzea. Kapital goseak ingurua baliabide gisa baino ez baitu ikusten, bere burua asetzen jarraitzeko. Beraz, nork elikatuko gaitu? Nork zainduko gaitu?, kateatutako bi galdera dira; bataz beste gabe ez du erantzun eraldatzaile aurkituko. Elikagaien ekoizpena, lurralde komuna errespetatuta egiten denean, funtzio soziala eta erabaki politikoa da. Gaur egun, belaunaldi-erleboia zama jasanezina da eta amesgaiztotik gertuegi dago, eta amets bideragarri eta erreala izateko, kolektiboki eutsi behar zaio eta beste aukera batzuk ireki behar dira. Bizitzari eusten dioten zereginen balioa ematea funtsezko borroka da, eta elikadurak oinarrizko adostasun soziala duen aliantza izan behar du.

EREDUEN TALKA INOIZ BAINO PRESENTEAGO

Erabakiak nortzuk hartzen dituzte eta nortzuk dira aurpegi ikusgarriak? Nortzuk jartzen dira erdian eta nortzuk jartzen dituzte periferian, ikusezin? Gutxiengo, periferia, mobilizazioetan ikusezin direnak, merkatu globalaren eredia interpelatzen dutenak dira. XX. mendearen erdialdean “iraultza berdea” deiturikoak, prisma kapitalistaren pean

asmatu eta bultzatu zen ekoizpen eredu intentsiboak, sektorea zorpetzera eta desagertzera eramandu; baina, berriz ere bueltan da, "iraultza berde eta digitala"-ren amets faltsuak saltzen; azken kolpea da. Azkenaldian, lurralde batzuetan megaproiektuen aurka agertzen diren traktoreen protestek ere, begirada indibidualista errepikatzen dute ("ez nire lurretan"), premia materialei (elikagaiak, energiak...) modu kolektiboan eta komunitarioan nola erantzun aztertu gabe. Mobilizazioetan gutxiengo ikusezina da agroekologia praktikara eramaten ari dena, begirada kolektibotik lantzen dituen lurraldeari lotutako proiektuak, inguruaren zaintzari lotutakoak, elikadura osasuntsua eta eskubideen aldarrikapena... nahiz eta politika publikotik gutxien sostengatzen den ereduia izan. Gutxiengo horrek ikusezin izaten jarraitzen du, baztertuak dira, haien erdigunea kapital handiaren zirkuituetatik oso urrun dagoelako. Ereduen arteko talka inoiz baino presentego dago.

Hori gertatzen den bitartean, eredu hegemonikoak jarraitzen du ikusgai izaten, NP Bren inguruan biraka dabilenak, makina handien eta merkatu handien ereduak. Diskurtso neoliberalari eta eskuin muturrekoei mesede egiten die *trending topic*-ak, zaratak, katramilak, liskarrak. Hori nabarmenagoa izan da lurralde batzuetan beste batzuetan baino; ez hainbeste, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetan. Baina zaratatik harago, sakoneko interesei begiratu behar diegu. Funtsean ikusten dugu eztabaida badagoela landa eremua ordezkatzeko zilegitasuna nork duen. Aukeren leihonon, iskanbilaren bolumena igotzeko estrategia dago; alde batetik, dagokion sigla-saltsa entzuteko eta, bestetik, beherapen fiskalen, ingurumen neurrien beherapenen, beherapen burokratikoaren... eskaeratik harago ez joateko. Epe motzeko adabakiak dira horiek. Zer eragin erreal izango du horrek guztiak nekazari gehien bizitzetan? Zertarako balio dute beherapenek lurraldea eta nekazaritzako elikagaien sistema egunetik egunera gero eta gehiago okertzen bada?

Etorkizuna elkarrekin amestera eramango gaituen eraldaketa nekez etorri-



Diskurtso neoliberalari eta eskuin muturrekoei mesede egiten die *trending topic*-ak, zaratak, katramilak, liskarrak

Bideragarritasun monetarioaz hitz egin behar da, baina baita proiektuak bizigarriak ote diren ere, eta lan guztiak ikusgarriak ote diren eta baloratzen ote diren

ko da iraganean ainguratutako erakunde eta sigletatik. Beharrezkoa da prozesu klabeen pentsatzea, eta adostutako manifestuak oratzea; mobilizazioak helburu baino tresna gisa ulertuta, zaratatik harago sakoneko aldaketak lortzeko bidea izan daitezen eta kontzientziak astindu ditzaten. NP Bk eta patroi produktibista modernoak "ahal duenak bere

burua salba dezala" genea inku-batu badute ere, beharrezkoa da indibidualismotik ateratzea eta ikusaraztea lehen sektorea ez dela bakarra, ezta homogeneoa ere; errealitatea askotarikoa dela, agroekologiatik hasi eta familia proiektu intentsifikatuetaraino, eta harago. Aliantza eta estrategia kolektiboak ez dira biderik errazena, eta urgentziatzeko garaiak diren arren, konfiantza su txikian egosten da. Feminismoak erakutsi digu amorru indibidual eta kolektibotik pentsatzeaz harago, ahizpatasuna dela amesteko eta proposamen bidezkoagoak eta demokratikoagoak eraikitzeko bidea. Erakutsi digu ikuspegi feminista duen formazio politikoak diskurtso propioak sortzeko aukera ematen duela.

Agerian geratzen da mobilizazioak eta negoziazioak birpentsatzeko beharra. Erakundeen arteko aliantza estrategikoen bidetik epe luzeko aldarrikapenak eta eraginak ekarriko dituzten proposamenak lantzeko beharra dago, kalera eta praktikara eramanda daitezkeen. Sistema kolapsatzearen eta hackeatzearen

bidetik, boterea urratuko duten eguneroko desobedientziekin, erreproduktzio sozialerako modu berriak sortzeko beharra dago. Ikusi dadila zaintzari eta lurraldeari lotutako elikadurak gure bizitzetan duen zentralitatea; politika eta gizarte alorretan hausnarketa eta eztabaida praktikoa sor ditzatela, Nafarroako Elikadura Burujabetzaren aldeko manifestuaren ildotik; horrela trantsizio agroekologikoa ahalbidetu dezaten, ekoizpena eta kontsumoa eskutik helduta ("elikadura agroekologikoa guztiontzat!" lemak dioen bezala).

Jada egiten ari garena ikusarazteko moduko mobilizazioak izan behar dute; jadanik asko egiten ari garela, kolektiboki eta komunalki, nahiz eta eskura ditugun baliabideak urriak diren. Bai, beharrezkoa da kolektiboki amestea eta proposamen agroekologiko feminista baten aldeko mobilizazioetan sostengu positibo eta erradikal bat gauzatzea. Amorrutik indibidualetik sortutako zaratik, iskanbilatik eta erredukatik harago, elkarrekin, amorru kolektibo eta eraikitzailetik, geure buruari galdetzea ea ze amets partekatu nahi dugun. ●

“ ”

Kirolariitsuak gara, eta ez itsuak kirola egiten

Aritz Huarte

Nafarroako Itsuen Kirol Taldeko kidea eta goalball jokalaria

Ikusmena galdu arren, partidak irabazten jarraitzen du Aritz Huartek. Eskubaloia utzi eta goalballean jokatzeko hasi zen duela hiru urte, Nafarroako Itsuen Kirol Taldean. Espresuki itsuentzat sorturiko kirola da, eta gaur egun, ikusmen desgaitasunen bat dutenek baino ez dute jokatzeko. Ezin ikusi, eta ikusezin sentitu: goalballa oso jende gutxi ezagutzen duela deitoratu du Huartek. Hori aldatzeko, ikusmen arazorik ez dutenei ere jokatzeko utziko lieke.

 EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

Eskubaloian ibili zinen garai batean, baina ikusmena galtzen hasi ahala goalballari heldu zenion.

Ikusmen arazoak, hasiera batean, frontenisean nabaritu nituen gehienbat. Pilota galdu egiten nuen, eta konturatu nintzen zerbait gertatzen zitzaidala. 16 urte inguru edukiko nituen. Eskubaloian, artean, ez nuen aparteko trabarik nabaritzen. Nire arazoa da ikuseremua murriztu egiten zaidala, eta frontenisean horrek asko eragiten zidan. Eskubaloian, aldiz, pandemiara arte jokatu nuen. Zailtasunak nabaritzen hasi nintzen paseak hartzerakoan, eta kirola beti gustatu zaidanez, alternatibak bilatzearekin nion. Ikusi nuen Nafarroan hainbat

aukera zeudela kirol egokituan, baina gehienak bakarkakoak ziren. Ni kirol kolektibo batetik nentorren, eta Iruñean, goalballa zen aukera bakarra ikusmen urritasuna dugunontzat.

Trantsizio horretan nola sentitu zinen? Kosta egin zitzaizun ikusmen arazoak zenituela onartzea?

Hasieran ez zen erraza izan. Nerabezaro bete harrapatu ninduen egoerak. Garai hartan kuadrillako gehienak gidabaimena eskuratzen hasi ziren, baina niri debekatu egin zidaten. Zokoratuta sentitu nintzen. Hasiera batean, alde txarrak baino ez dira ikusten, eta egin ezin nituen gauzetan jartzen nuen arreta. Baina

denbora pasa ahala, ohartzen gara gauza asko egiten jarrai dezakegula. Prozesu horretan oso lagungarria da beste kasu batzuk ezagutzea. Jabetzen zara mundua ez dela bukatzen. Eta kirolak ere asko ahalduz zaitu.

Zer ematen dizu, zehatz-mehatz, kirolak?

Autoerrealizatzeko modu bat da, beraz, prozesua hobe eramaten laguntzen dizu. Era berean, ikasgai asko ematen dizkizu eguneroko bizitzarako. Goalballarekin abilezia oso baliagarriak lantzen ditut. Jaurtiketak egiterakoan, adibidez, erreferentziak hartu behar ditugu: atea, leuroak, edo dena delakoa. Gaez ez dut



“Gauz ez dut ia ezer ikusten, beraz, lagunekin asteburuan ateratzen naizenean, goalballean ikasitako teknikak erabiltzen ditut”.

ia ezer ikusten, beraz, lagunekin asteburuan ateratzen naizenean, goalballean ikasitako teknikak erabiltzen ditut.

Bereizgarri nagusi bat du goalballak: itsuentzako edo ikusmen murriztua dutenentzako propio sorturiko kirola dela.

Hala da. Beste kirol guztiak kirol egokituak dira, baina goalballa Bigarren Mundu Gerran itsu gelditutako solda-

“ ”

Gure kirolak jendeak errukiz-edo ikusten ditu: ‘Begira, hor ari dira itsu batzuk kirol pixka bat egiten’. Horri buelta eman behar zaio

duentzat sortu zen. Hau da, zuzenean gure ezaugarrietara egokituta dago. Kirol espezifikoa bat da. Batzuetan itsuentzako futbola dela esaten da, baina ez du zerikusirik. Ez zaigu beste kirolekin lotu behar. Justu kontrakoa egin behar da: gure berezitasuna goratu. Horrekin ez dut esan nahi kirol normatiboak egokitzearen aurka nagoenik. Gauza batek ez du bestea kentzen. Era berean, eztabaida bat dago orain goalballaren inguruan: ea ikusmen arazoak ez dituztenei ere atea zabaldu behar zaien. Denok begimozorroa jarrita jokatzeko dugu, beraz, baldintzak berberak dira. Nire ustez, ona izango litzateke kirol honentzat. Jende gehiagok ezagutuko luke.

Baina ikusmen arazorik ez dutenak hobe moldatuko balira, tokirik gabe geldituko lirarteke itsuak.

Horren harira sortzen da eztabaida. Arriskua hor dago, baina kontrakoa ere gerta liteke; hau da, itsuak hobeak izatea guztiz ongi ikusten duten pertsonak baino. Beste kirol batzuekin ez dago eztabaida hori. Adibidez, atletismo egokitua beti izango da espezifikoa itsuentzako. Baina goalballa berezia da. Eta denentzako ez irekitzeak kalte egiten dio ikusgarritasun aldetik. Gaur-gaurkoz, oso jende gutxi ezagutzen du. Hori aldatu egingo litzateke mugarik jarriko ez bagenu. Eta era berean, erakutsi ahaliko genuke ikusmen arazoak izanda ere kirola oso maila onean egin dezakegula. Bestela, gure kirolak jendeak errukiz-edo ikusten ditu: “Begira, hor ari dira itsu batzuk kirol pixka bat egiten”. Horri buelta eman behar zaio.

Hau da, goalballa kirol normatiboen pare jarri nahi duzue.

Hori da. Goalballa jendearentzat kirol bat gehiago izatea nahi dugu, eta ez itsuen kirol bat. Gure inguruko hedabideetako artikuluetan, kirol hau bigarren mailan utzi izan dute kazetariak. Pixkanaka aldatzea lortzen ari gara, eta gutxienez kirolen atalean sartzen gaituzte. Lehen, ordea, gizarte gaietan sartzen gintuzten. Gure kasuan, inklusioa bultzatzeko modu onena da kirol lehia azpimarratzea, eta ez bakarrik gure egoeraz hitz egitea. Bestela, kirola oso ezkutatuta gelditzen da. Eta kirolaria ere bai. Gure filosofia esaldi bakarrean laburtzen dugu: kirolari itsuak gara, eta ez itsuak kirola egiten. Alde handia dago batetik bestera. Gure borroka hor dago: nagusiki kirolaz hitz egin dadila nahi

dugu, eta bestelakoak bigarren mailan gelditzea.

Bada, jar dezagun arreta kirolean. Zertan datza goalballa, eta zer abilezia behar da jokalaria onazateko?

Hiru jokalariko bi talde izaten dira aurrez aurre, eta helburua baloia aurkariaren atean sartzea da. Lehenik eta behin, arreta maila handia behar duzu. Oso kirol azkarra da: hamar segundo baino ez dituzu baloia hartzen duzunik jokaldia bukatu arte. Eta defentsan oso txikia da erreakzionatzeko tartea. Baloiak kanpaitxo bat dauka barruan, soinua atera dezan, eta ezin duzu airetik bota. Jaurtiketa egitean, lehen botea sei metrora eman dezake gehienez, eta bigarrena hamabi metrora. Gauzak horrela, hamar metro inguru egoten da jaurtitzaileren eta defentsaren artean. Baloia nahiko astuna da, 250 gramo ditu, eta jokalaria on batek jaurtitzen duenean 60 kilometro orduko abiadura har dezake. Beraz, erreakzionatzeko pare bat segundo dituzu, besterik ez. Horretaz aparte, taldeko hiru jokalariek oso koordinazio ona izan behar dute, eta teknikak, mugikortasunak eta orientazioak ere garrantzi handia dute.

Zelaiak hemezortzi metroko luzera du, eta bederatzi metroko zabalera. Soilik hiru jokalarirekin oso zaila izango da hutsune guztiak betetzea.

Bai, eta alde horretatik, oso garrantzitsuak izaten dira entrenatzaileak. Haiek aurkariaren defentsan hutsuneak non dauden esaten digute. Baloia jokoan dagoenean ez, baina zelaitik ateratzen denean gurekin hitz egin dezakete. Eta hutsarreak ere badaude, eskubaloian bezala, adibidez. Aurkariak modu jakin batean mugitzen dira defentsan, eta eremu bat beste bat baino hobe defendatuko dute. Hau da, beti hutsune bat egoten da, eta entrenatzaileak esaten digu non dagoen. Gero, ordea, zuri dagokizu baloia bertara bidaltzea.

Dimentsio aldetik, ez duzue espazio handi baten beharrik. Ordea, ate bereziak erabiltzen dituzue, eta goraguneak dituzten marrak. Eta isiltasun osoa behar duzue jokatu ahal izateko. Hots, ezin zaitezketeko edozein kiroldegitan aritu.

Espazioa nahiko erraz egokitu dezakegu gure beharretara; zintak, adibidez, entrenamendu bakoitzaren aurre-



ARTZ HUARTEK UZTIAK

“ ”

Espainiako telebista publikoak dirutza ordaindu du Olinpiar Jokoak emateko, baina paso egin du hasiera batean Paralinpiar Jokoez. Lotsagarria da

tik jartzen ditugu. Baldintzarik zailena isiltasuna izaten da. Kiroldegian pista erdia ematen dizute, eta beste erdian eskubaloian edo saskibaloian aritzen dira. Zarata horrekin guk ezin dugu jokatu; baloia entzun ezean, ezinezkoa da.

Gaur egun, ikastetxeetako gimnasioetan baino ezin dezakegu jokatu, Iruñean behintzat. Bidean zenbait traba izan ditugu. Adibidez, martxoan entrenatzeko lekurik gabe gelditu ginen, erabiltzen genuen espazioan eszenatoki bat jarri zutelako. Orain Mendillorriko eskola batean jokatzen dugu. Hemen ondo egon arren, sentitzen dugu kili-kolo gaudela beti: araudiak dio guraso elkarteek dutela lehenasuna, beraz, gure ordutegian ekintzaren bat programatuko balute, beste norabait joan beharko genuke.

Gasteizen kiroldegi espezifikoa bat dago kirol egokitua egin nahi dutenentzat. Iruñean ere halako azpiegitura egon beharko lukeela aldarrikatzen duzue Nafarroako Itsuen Kirol Taldean.

Iruñea hiri inklusiboa dela esan ohi da, baina kirolaren kasuan hutsune hori dauka. Gertuko hiri batean alternatiba

on bat daukagu; zergatik ezin dugu guk ere gune espezifiko bat eduki kirol ego-
kiturako? Atletismoko federazioak ere
urte asko daramatza pista baten eskean.
Guk eskatzen duguna da gutxienez kirol-
degi bat egotea non guk izango dugun
lehenetsia. Eta gure beharretara ego-
kituta badago, ba are eta hobeto. Gas-
teizen entrenatzeko erraztasun guztiak
dituzte, eta kirol askotako txapelketak
antolatzen dituzte. Guretzat, ordea, oso
zaila da; iaz goalballeko jardunaldi bat
egin genuen Iruñean, eta oso nekagar-
ria izan zen. Aurten, berriz, behin ere ez
dugu jokatu etxean. Horrela oso zaila da
kirol hau jendeari ezagutaraztea.

Zuek lehen mailako ligan aritu zarete aurten. Zenbatero eta non jokatu dituzue partidak?

Bi itzuliko liga da, eta partida guztiak
hiru asteburutan jokatu ditugu. Oso
nekagarria da. Gehienbat Bartzelonan
eta Madrilen aritzen gara, eta larunbat
goizean bidaiatu ohi dugu. Hiruzpalau
partida jokatzeko ditugu arratsaldean,
eta beste horrenbeste biharamun goi-
zean. Azkeneko neurketa bukatu eta
jarraian hartzen dugu itzulerako tren-
a; porru eginda bukatzen dugu. Aurre-
nekoz aritu gara lehen mailan, eta ezin
izan dugu jaitsiera ekidin. Ea laster itzul
gaitezkeen. Gaur egun, gizonezkoen bi
talde ditugu. Bere garaian eduki genuen
emakumezkoena ere, baina desagertu
egin zen. Era berean, atzerritarrek aur-
kitu nahi ditugu goalball talderako eta,
oro har, gure elkarterako, uste baitugu
asko lagun diezaiekegula.

Kirol eskaintza zabala duzue. Lehen hitz egindakoaren harira, zeri ematen diozue garrantzi handiagoa, inklusioari ala lehiakortasunari?

Bi alorrak lantzen saiatzen gara. Kiro-
lak, noski, badu alde sozial bat. Nor-
malean, desgaitasuna duten pertsonak
oso bakarrik sentitzen dira, eta kirol-
ak talde baten parte sentitzeko aukera
ematen die. Horretarako, mendizale eta
dantza talde bat daukagu, eta urtean
zehar beste ekintza puntual batzuk egi-
ten ditugu. Baina alde lehiakorra ere
lantzen dugu, eta gure kirolarietako
batzuk punta-puntan dabilta. Paralin-
piar Jokoetara lau nafar joango dira, eta
horietatik bi gure klubekoak dira: Izas-
kun Osas atletismoan eta Ivan Salguero
igeriketean. Alderaketak egiten hasita,
Osasunak ez dauka kirolari olinpikorik.
Guk bi ditugu, eta oso harro gaude haie-



ARITZ HUARTEK UTZIAK

“ ”

*Normalean,
desgaitasuna duten
pertsonak oso bakarrik
sentitzen dira, eta
kirolak talde baten
parte sentitzeko aukera
ematen die*

taz, ondo baitakigu zer nolako ahalegi-
na egin duten dauden tokira iristeko.
Profesionalak dira dedikazio aldetik,
Osasunako jokalarien pare.

Alde handia dago, ordea, batzuek eta besteek jasotzen duten soldatan, baita komunikabideen aldetik jasotzen duten arretan ere. Zentzu horretan, ikusezin sentitzen zarete kirolariitsuak?

Bai, eta adibide bezala balio du Espai-
niako telebista publikoak Olinpiar eta
Paralinpiar Jokoen artean egin duen
bereizketa. Salagarria eta lotsagarria
da. Olinpiar Jokoak emateko eskubidea
55 milioi euroren truke erosi du, bai-

na Paralinpiar Jokoez paso egin du, ka-
nona askoz ere merkeagoa izan arren.
Espainiako kirol kazetari ezagun batek
ordaindu du, bere Twitch kanalerako.
Pentsa kirol paralinpikoari nolako kal-
tea eragiten dion irudi aldetik ekitaldi
nagusia soilik Twitch kanal batean es-
kaintzeak [elkarrizketa egin eta gero
RTVEk paralinpiarrak emateko eskubi-
dek erosi zituen].

Iaz bigarren mailako golegile nagusia izan zinen, eta Espainiako selektzioak deitu zintuen. Inoiz ikusiko zaitugu Paralinpiar Jokoetan?

Amets hori daukat. Espainiako Esta-
tuko selektzioarekin aritu izanak ho-
betzeko aukera eman dit, onenekin
ikasten baita gehien. Oraindik denbora
gutxi daramat goalballean, eta uste dut
hazteko tarte handia dudala. Horren
azkar nabarmendu izanak ez du esan
nahi erraza denik: ezagutzen ditudan
jokalari gehienak umetatik ari dira kirol
honetan, baina gutxi batzuk iritsi
dira gorenera. Ni jada hasia naiz selek-
tzioarekin jokatzeko, beraz, Paralinpiar
Jokoak ez ditut horren urrun. Ordea,
azken urteetan Espainiako selektzioa ez
da sailkatu; zortzi selektzio bako ez
dute jokatzeko. Erreferenteak Brasil eta
Txina dira. Tira, ea hemendik lau urtera
haien aurka joka dezakedan, eta hala,
amets olinpikoa bete! ●

Oraingoan kamiseta zuria

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Sinestea kostatzen ari bazaigu ere uda da, mahuka motzak janzteko garaia. Agian izango duzu kamiseta grisa, edo urdina, edo beharbada ez. Kontua da atera dugula Inor ez da ilegala kamiseta berria, oraingoan Vingage zuri kolorekoa, Euskal Herriko txoko guztietan orain arte gozatu ahal izan dugun eguzkiperako pare-parean datorren kolorea. Aurreko kamisetak bezala, berri hauek ere ebakera estukoak eta zabalekoak dira. 17 eurotan salduko ditu ARGIAk azoka.argia.eus helbidean, eta nola ez, proiektu honen beste hanka den Mbolo Moye Doole elkarteak ere salduko ditu. Erositako kamiseta bakoitzeko Mbolo elkarteari 2 euroko ekarpena egingo zaio.

2018AN ABIATU GENUEN PROIEKTUA

Sei urtean, Inor ez da ilegala proiektuak lau haizetara zabaldu ditu migratzaileen eskubideen aldeko lelodun kamiseta, jertse eta poltsak; elkarlana eta elkartasuna oinarri ditu ekimenak.

2018an du abiapuntua egitasmoak. Bilboko kale-saltzaile senegaldarren Mbolo Moye Doole ehun bat kideko elkartera jo zuen ARGIAk, artikulua baten harira. Paperik gabeko mantero izateari utzi eta kale-saltzaile legal bihurtzeko urratsak emanak zituzten horietako askok, baina arrazakeria eta xenofobia instituzionala jasan behar izan zuten. Injustizia haren berri emateko gerturatu eta harreman baten hasiera izan zen: ARGIA eta Mboloren artekoa. Elkarrekin zerbait egiteko gogoia piztu zen, eta beharra, elkarren proiektuak indartzeko, injustizia hizki larriz bistartzeko. Horrela jaio ziren kamiseta grisak, aldarrira ardatz: *Inor ez da ilegala* euskaraz, *Amul been nit ku leegalul* wolofez.




DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

EKARPEN EKONOMIKOA “EGOERA LATZETARAKO” ETA EGITASMO BERRIETARAKO

Kale-saltzaileak eurak joan dira erabakitzen Mbolora bideratutako dirua nola kudeatu. Hasieran, kooperatiba sortzeko gorde zuten dirua, baina traba trabaren atzetik bertan behera geratu zen ideia, eta gainera pandemiak bete-betean kaltetu zituen, ordura arte lortutako dirua erresistentzia kutxa sortzeko baliatu zuten: “Ezin kalera atera, ezin ezer saldu, gure inguruko familia asko premia larrian geratu ziren eta pentsatu genuen dirua baliatzea egoera gogorrean zeudenei laguntzeko”, azaldu du Bouba Diouf elkarteko kideak. Erresistentzia kutxak pandemia garaian zuen funtzioa mantentzen due-

la kontatu du senegaldar bilbotarrak: “Oraindik ere egoera latza da, jende gero eta gehiago dator, eta askok laguntza behar du, ez bakarrik etorri berriek, batzuetan hemen daudenek ere, laguntzarik ez badute, oso zaila dute, eta horiei guztiei laguntzeko erabiltzen dugu proiektuko dirua”. Dena den, kopuru bat gordetzen doazela nabarmendu du, “bolada gogorragoetarako hor egongo da”, eta egitasmoren bat edo beste badute buruan bueltaka.

Akordatzerako iritsiko da udazkena, mahuka motzetan ibiliz gero besoetako ileak tente jartzen diren garaia; bada, ARGIAko kideak ari dira pentsatzen hurrengo jertsea nolakoa izango den: txanoarekin, txanorik gabe, kolore ilunekoak, argia... ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Argizaria: bizitzaren eta heriotzaren artean

Paris, 1845. Frédéric Bastiat (1801-1850) ekonomialari eta politikari lapurtarrak *Pétition des fabricants de chandelles* (Kandelagileen eskaera) satira idatzi zuen. Protekzionismoaren aurkari sutua, kandelagileek "bere argia salneurri baxuegitan eskaintzen duen lehiakide atzerritar baten konkurrentziaren" aurrean babeska eskatzen zutela zioen ironiaz; atzerriko argi hornitzaile hura Eguzkia zen.

Satirak satira, XIX. mendearen erdialdean kandelagileen industria gailurrean zegoen, 1834an Manchesterren Joseph Morgan artisauek ekoizpen mekanizatu ahalbidetzen zuen makina patentatu ondoren. Baina, Eguzkia bera baino lehiakide gogorragoak iritsi ziren berhala; kerosenozko lanparak lehenik eta, gero, 1879an, bonbilla gorriak.

Hori baino lehen, Euskal Herrian ere kandelagintza indartsu zegoen. XVII. mende hasieran, esaterako, Gasteizen argizaria lantzen zuen gremioa garrantzitsuenetakoa zen. Beste toki batzuetan, adibidez, Tolosaldean, kandelagintza eta papergintza eskutik joan ziren, biek lehengai bera erabiltzen zutelako: parafina. Eta antzeko zerbait gertatu zen gozogintzarekin. Gozogileek erleen ez-tia erosterekin bat, argizaria ere eskura zeukaten –eta hainbat kasutan, Bastiatek hainbeste gorroto zituen lege eta arau protekzionistek argizaria ere erostera behartzen zituzten gozogileak-. Gainera bi jardueretan antzeko ontzi eta tresnak erabiltzen zituzten. Hala, zenbaitek bi produktuak batera ekoiztu zituzten eta, beste batzuek, aldiz, jarduera batetik bestera egin zuten jauzi. Esaterako, Norberto Nafarrete XIX. mende bukaeran Donostian zeukan txokolata enpresa Agurainera mugitu zen eta han argizaria landu zuen Nafarrete fabrikak 1960ko hamarkadan ateak itxi behar izan zituen arte.

Fabrika hartan egiten ziren kandelak erabilera erlijiosoa zuten; bizidunak argizariaren merkaturia izateari utzia zioten eta hildakoei argia emateko erabiltzen ziren nagusiki.



TOLOSALDEA.EUS

Amezketako San Bartolome elizan oraindik argizaiolak pizten dituzte urtero, baina ohitura horri eusten dioten salbuespen bakaretakoa da.

Tolosaldean, kandelagintza eta papergintza eskutik joan ziren, lehengai bera erabiltzen zutelako: parafina. Eta antzeko zerbait gertatu zen gozogintzarekin

Kandelak erritualetan erabiltzeko ohitura Antzinarotik dator eta egun hainbat erlijiotan erabiltzen dira. Katolizismoan hildakoei lotutako erritualetan pisu handia izan du argizariak. Euskal Herrian, tradizioz, argizaiolak –eta haien inguruan kiribildutako bildumenak– erabili izan dira hildakoen omenezko zeremoniatan.

ARGIZARIA ETA DOLUA

Hildakoak elizetan ehortzita zeuden garaian, eta familiek beren belaunalki propioak zituztenean, argizaiolak pizten zituzten arrastoaren aurrean. Baina hildakoak hilerrietan ehortzeko eta elizetan zeudenak handik ateratzeko ohitura zabaldu ahala, argizaiolak itzaltzen joan

ziren, eta azken kolpea Vatikanoko II. Kontzilioak eman zuen 1965ean, belaunalki indibidualak banku jarraiez ordezkatzeko erabaki zuenean. Amezketako San Bartolome Elizan ez zuten aldaketa hura egin, eta belaunalkiak erabiltzen dituzte oraindik. Eta urtero argizaiolak pizten jarraitzen dute beren hildakoei argia emateko.

Baina, salbuespenak salbuespen, argizaria lantzeko eta hildakoen omenez pizteko ohitura galduta dago gurean. Horregatik, Euskal Herriko Unibertsitateak, udako ikastaroen egitarauan, "Argizari galduta: artxibategiak, ezagutzak eta sorkuntza" ikastaroa egingo du Baionan uztailearen 19an, izen bereko programa zabalaren barruan. Besteak beste, argizariaren ekoizpenari lotutako ezagutza teknikoak nabarmentzea eta babestea du helburu ikastaroak, "desagertzeko arriskuan dagoen artisautea baita". Baina horrez gain, aspaldiko praktika horiek bizidunen eta hildakoen arteko harreman estu eta naturalagoa bermatzen zutela nabarmentzea du xede, argizaria galduta bizitzaren eta heriotzaren arteko lotura hori ere galtzen dela. ●

GARBITASUNA



BALERDIPEKO ERLEAK
MATTIN JAUREGI ETA
INAXIO ARIN

Erleek jaiotzetik hil arte duten joera bat da garbitzeko gaitasuna. Jaio bezain laster hasten da bera jaio den abaraska garbitzen, puskatu dituen argizari zatiak erlauntzatik kaleratzen. Garbitzeko ohitura ez da jaio berritan bakarrik duten gaitasuna, erle helduek ere garbitzen jarraitzen dute. Helduak ez dira erlauntza garbitzera jartzzen, elkar garbitzen baizik.

Barroa izeneko akaro bat itsasten zaie erle langileei gorputzean lorez lore dabiltzanean. Akaro horrek erleei kalte handia egiten die eta horri aurre egiteko erleak akaroak garbitzen edo kentzen saiatzen da. Tximuek ere badute antzeko joera bat zorriekin, kasu horretan, ordea, jan egiten dituzte.

Akaroak kentzeko joera handia duten erlauntzak dira erlezainen gustukoak, horrek gaitzei aurre egiteko abilezia dutela erakusten baitu.

Erlauntzaren garbitzeko ahalmena neurtzeko hainbat froga egin izan ditugu erlezainok, "pint test" izena duten probak. Proga horien helburua erlearen garbitzeko abilezia neurtzea da.

Horretarako, jaioko diren 100 erle zulatzen ditugu orratz batekin: orratzak 100 erle horiek hiltzen ditu.



BALERDIPEKO ERLEAK

Erlezainok kronometro baten bidez neurtzen dugu zenbat denbora tardatzen duten hildako erleak identifikatzen eta kaleratzen, horrela gure erlategiko erlauntzarik garbiena zein den jakiteko.

Erleak, ikusten den bezala, hildako guztia kaleratzen du erlauntzatik bere familia ez gaixotzeko. Ez da gaixotasunen aurka egiten duen gauza bakarra.

Erleak abaraska, ertz eta sarraila guztiak desinfektatzen ditu: horretarako, propoliz estaltzen du dena, izan ere,

propolia landaretik eskuratzen duen erretxin desinfektatzaile bat da.

Erle narratsik ez dut oraindik ikusi, bere erlauntzako zikinkeriarik ateratzen ez duenik.

Erlezain narratsak badira ordea: erlategiak zakarrez beteta, argizari zikina eta denetik duena erlategian botata... eta erleak ezin zikinkeria hori garbitu!

Garbitasuna ez da mania hutsa izango, zerbait behar-beharrezkoa izango da. Garbi baitago erleak alferrikako lan gutxi egiten dituela. ●

ekologikoa, baserritik mahaira!



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkadarura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasunak
kofinantzatua



A ZE FAUNA!

BUSTITZEN EZ DEN ARRANO



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADIKO KIDEA

Ur azaletik gertu dabilta arrainak igerian. Zerbait uretarantz gerturazten ari da, hegan: arrano bat dator, bere atzaparrak aurrerantz luzatuta eta zaplast! Uretan sartu da, bete betean. Arraina harrapatu ostean burua uretatik atera du arranoak, baina arrainak hondorantz egiten du igeri indartsu: arranoak hegalak ere indartsu astindu behar ditu uretatik irten eta hegan egitea lortu nahi badu. Hegal gihartsuei esker atera da hegan, atzapar artean harrapatu berri duen arraina duela. Arrano arrantzaleari (*Pandion haliaetus*) buruz ari gara, noski.

Arrantzatzeko uretan murgiltzen den arrano espezie bakarra da. Bereizteko nahiko erraza da, gorputzaren goialdeko lumak marroi ilunak eta azpialdekoak zuria ditu eta. Burua ere zuria du, begialdea izan ezik: hau iluna du, mozorroa daramala dirudi. Begiak deigarriak ditu, kolore horikoak. Baina nola da posible uretan murgildu ostean blai egonda hegan egin ahal izatea? Olio-guruin bati esker da, arranoak bere lumak garbitzen eta iragazkaitz bihurtzen ditu eta ondorioz, bere lumak ez dira hainbeste bustitzen eta hegan egiteko aukera izaten jarraitzen dute. Sudur zuloak ixten dituen mintz bat ere badu.



SKYLER EWIN

Hego Euskal Herrian umatzen den bikote bakarra dago, Urdaibaiko Biosfera Erreserban hain zuzen ere, 2013. urtean espeziea berriz sartzeko hasitako programaren ondorioz bertan finkatu dena. Beraz, uda garaian bikote hau ikusi dezakegu, baina migrazio garaian indibiduo gehiago behatu daitezke. Arrano arrantzale gehienek udazkenean hasten dute migrazio bidaia, Afrika tropikala helmuga izanik. Helduek urtero egiten dute udazkenean Afrikara eta udaberrian iparraldera buelta; gazteek aldiz, beraien lehenengo bi urteak igarotzen dituzte Afrikan.

Habia arrain ugari dituzten ur matetatik gertu egiten dituzte, nahiz eta

ARRANO ARRANTZALEA

Pandion haliaetus

TALDEA: Ornoduna/Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik isatsera 53-66 cm.
Hego-luzera 147-174 cm.

NON BIZI DA? Hainbat hezegune motatan, bai ur geza duten lakuetan zein itsasaldean.

ZER JATEN DU? Arrainak.

BABES MAILA: Europar babestua.

batzuetan hauek arrantza gunetik kilometro batzuetara egon. Habiak oso handiak izaten dira, metro bateko diametroa eta 200 kg inguru izaten dituzte. Hain handiak izanik, normalean haitzetan edo zuhaitz handietan eraikitzen dituzte eta hainbat urtetan izaten dira erabiliak. Ez dute egitura artifizialak erabiltzeko inongo arazorik, hau dela eta, habia egiteko aukera gutxi dauden inguruneetan plataforma artifizialak jartzea ideia ona izan daiteke.

Arrano espezie honek pairatu zuen atzerakadaren arrazoi nagusiak ehiza eta habiak hondatzea izan ziren. Gaur egun, aldiz, beste arrisku batzuk dituzte: habitaten eraldaketa eta suntsipena, pestizida organo-

kloratuek eta merkurio isuriek eragindako kutsadurak edo habiak hondatzea. Umatzeko garaian egon daitezkeen mehatxuak habiaren inguruan izan ditzakeen arazoekin lotuta daude: itsaski-bilketa, arrantza eta uretako kirola esaterako. Migrazioa, bidaia luzea izateaz gain, gizakiok eragindako hainbat faktorek ere arriskutsu bilakatzen dute: aerosorgailuekin talka, elektrokuzioak edo isileko ehiza, besteak beste. Eta azkenik, gure lurraldean bikote berriak ezartzea eragotzi dezakeen arazo bat habiak egiteko leku natural falta da. Azken kasu horretan, plataforma artifizialak jarri daitezke. ●

EREIN AURREKO HAZIEN BEDEINKAZIOAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Galdera hau jaso berria dut Bizi Baratzeako postontzian: "Gaia San Joan bezperako familia afarian atera huen, Unanue sargardotegian, Azpeitian. Seguran Santa Engrazia egunean erein behar ditugun haziak bedeinkatzen dira. Erein beharrezko hazi guztiak eramatea komeni al da?, edo bakoitzetik banaka batzuk eramanda nahikoa izan ohi den jakin nahiko nuke. Mila esker. Besarkada bat". Aitor Unanue

Eta nire erantzuna: "Inolako zalantzarik gabe denak eramanez. Hazi bakoitza bat eta bakarra da. Aita baten eta ama baten arteko hibridazio edo nahasketaren ondorioa. Ez da inoiz bere kopiarik sortuko. Kopia edo klonak sortzeko era bakarra hibridazio kontrolatua da. 'F1 hibridoa' ikusiko zenuen noizbait, agian, hazi poltsatxoren batean... Hori da landare berdinak sortuko dituzten hazi berdinak egiteko era bakarra. Ohiko haziak, aldiz, jeneralean datoz ezezaguna den aita eta hazia daraman fruitua emango duen amaren eman-hartu eta nahasketa sexualetik. Agian ezaguna egiten zaizu aita ezezagunarena eta ama ezagunarena; bedeinkazio bila elizatik elizara bazabiltza, are eta ezagunagoa".

Beraz, hazi bakoitza bat eta bakarra izaki, bat bakoitz horrek hartzen duen

Segura

Apirilak 22: hazi eta ur bedeinkatzea

Santa Engrazi eguna apirilaren 16an izan bazen ere, igandean, apirilaren 22an, egingo da Santa Engrazi ermitan, eguerdiko 12etan, hainbeste urtez eutsi zalon tradizioa: hazi eta ur bedeinkatzea. Jose Luis Agirretxe apaizak, Mahasti iturriko unari gatza bota, bedeinkatu eta, erramu adarrarekin, herritarrek ekarritako haziak eta ura bedeinkatuko ditu. Ondoren, auzoan hildakoen aldeko meza ospatuko da.

Azkenik, Santa Engrazi baserriko Ormazabal sendiak, hamalketakoa eskainiko du Udalaren laguntzaz. Tradizioaren arabera, inguruko baserrietakoek, meza dirua eramaten diete Ormazabaldarrei.



bedeinkazioak zer eraginik ez du izango beste hazietan. Bedeinkazioa bedeinkazioa da; ez da, Beñat Sarasola Santamaria poetak dioen bezala, saguzarraren eguerdiko doministikua. Bedeinkatua izango da mirakulurako bidea zedarritzen duen uraren ttantak busti duena. Bedeinkazioaren grazia hartzen duena hazia denez eta hazi guztiek bezala landarea sortzeko bidean lehen lana sustraiak sortu eta lurra ahalik eta indartsuena jo-jo eta zulatzea duenez, ur ttanta horrek ernetzeko asmoa piztuko dio; haziaren baitan lo dagoen landare berriaren muina esnatuko da. Urak zelula berriak sortu eta zaina indarrean zut jartzen du, eta ur hori bedeinkatua bada zutitze eta tentetze hori are eta bulardetsuagoa, gogorrago, balenkiagoa, berdekiagoa, bihozgunagoa, indartsuagoa, harditagoa, kementsuagoa, dulabreagoa, sutuagoa, errimegoa, mutiriagoa, gotorrago, azkarragoa, azarriagoa, irmoagoa, fierrago, zimelagoa, bortitzagoa, suharragoa, errutsuagoa, kuraiosagoa, gotorrago, kaliputsuagoa, irmoagoa, fetxoagoa, sendoagoa, pijoagoa, tinkoagoa, bipilagoa, kartsuagoa, fermuagoa, goriagoa, tenkorragoa, zozkotsuagoa, adoretuagoa, finean zinki eta finki erretuagoa izango da, dudarik gabe.

Ez ezazula, deabru txerrenenaren ize-nean, hazi bakar bat bera ere bedeinkatzen gabe utz. Hazi horretatik letorkeen landarea erruki dut: soro osoa asalatu, setetik atera, oldartu, matxinatu, mutinatu eta ernegatuko duen artaldeko ardi beltza, amak sekula miaztu gabeko sasiardia, behikundeko adarbakarra, betizu begi-oker ezkela, herriko zakil-handi erreena, oilar ezproi kamuts gandar gabea, txerri-jende arteko masto errena izango da. Soro jorran aritu behar duen jorrazaillearen jorraiak laster berarena egingo duena. Garbizaleari ere garbitze lana aurreratuko zaio, zaizu, hazi hori behar bezala bedeinkatua izan bada.

Ez ezazula, sekula jo eta jokatu gabe berrogei azazkaldun bihurtu zenaren izenean, hazi bat bera ere Santa Engraziako ur mirarigile horretan blaitu gabe uztearen sakre madarikazioa egin. Une horretatik atzera bizi ezin eta iraungo duzun eguna bai eta hurrengoan ere bai, Bitoriano Gandiaga Artetxe fraide poeta zenak zioen bezala zure arima, bere aldiz, ernegu bizitzea nahi ez baduzu.

P.S. Erregu ezazu, arren, inongo zopajale seguratarrek ez dezala hau irakur; sekula sekulorum iraungo lukeen "hazien zalantzia" edo ezizen aise maltzurragoren batekin bedeinka ez zaitzaten. ●

NAFARROAKO HAZIEN LIBURUTEGIA

“KULTURA, LIBURUETAN EZ EZIK, ESPERIENTZIA PERTSONAL ETA KOMUNITARIOETAN ERE BADAGO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2022an Nafarroako Liburutegien Sareak martxan jarritako proiektu berezia da hazien liburutegia. Clara Flamarique Goñi da Nafarroako Gobernuaren liburutegi zerbitzuko proiektuen arduraduna, eta honela gogoratu ditu hastapenak: “Zaragozako liburutegian martxan zuten hazien liburutegia ezagutu genuen, eta ideia ederra iruditu zitzaigun. Formakuntza jaso, eta antzeko proiektua Nafarroan abiatzea erabaki genuen”. Interes handia piztu zuen hasieratik ekimenak, eta lurralde osoko 23 liburutegi dira proiektuko kide.

LURRAREN KULTURARI BALIOA EMATEKO

“Liburutegiak kulturarako guneak dira, eta, gure ustez, kultura ondarea ez dago liburuetan soilik, esperientzia pertsonal eta komunitarioetan ere badago”, azaldu du Flamariquek. Kultura eta “kultibo” hitzek jatorri etimologiko bera dutela gogorarazi du, eta, beraz, zergatik ez dira liburutegiak hazien eta lurraren kultura zabaltzeko eta babesteko gune aproposak izango? Lotura horri tiraka jarri zuten martxan proiektua. Hasteko, haziak gordetzeko armairuak banatu zituzten 23 liburutegietan eta Nafarroako Hazien



Sareak eta INTIAk emandako haziekin hornitu zituzten guztiak. Oinarrizko bilduma horrez gain, herri bakoitzean, bertako haziak emateko aukera dute herritarrek. Eta, bistan da, emateko ez ezik, hartzeko ere bai.

Baina, hazien liburutegi fisikoaz gain, nekazaritzari lotutako ondare immaterialari ere balioa eman nahi izan diote proiektuko “Mintegi” ekimenarekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean, lurrari eta nekazaritzari lotutako hitzak eta esaera zaharrak jasotzen ari dira bertan. Gainera, 2022an, hazien liburutegi proiektua martxan jarri berri-tan, liburutegi iberoamerikarrei zuzendutako diru-laguntzara aurkeztu zuten egitasmoa, eta proiektua garatzeko diru-laguntza jaso zuten. “Horri esker, hazi- eta nekazaritzari lotutako egitarau zabala

programatzeko aukera izan dugu: antzinako barietateen informazioarekin osatutako egutegia atera genuen, ereite tailerrak egin genituen, hitzal-diak, proiektzioak...”.

ORAIN HAZIEN ZAINDARI BILA

Proiektuaren alderik aberatsenetako bat hazien liburutegiak Nafarroako eskualde askotara eraman izana da. “Beti saiatzen gara saretik proiektu kolaboratiboak bultzatzen, lurralde osora zabalduko direnak, liburutegiak sustatzaile izan daitezen”, dio Flamariquek. Hazien liburutegiak martxan dituzte Leitzan, Olaztin, Aurizberrin, Erronkarin, Garesen, Lizarraldean, Artaxoan, Allon, Tafallan, Erriberrin, Mendabian, Castejonen, Arguedasen, Cintruenigon, Ribaforadan, Monteagudon eta Iruñerriko zenbait auzotan. “Herri bakoitzeko haziak ere bildu ditugu, hasieran ez genituenak baina gerora jasotzen joan garenak”, azaldu du Flamariquek.

Nekazaritzaren eta elikadura burujabetzaren bueltako elkarte eta taldeekin elkarlanean egin du proiektuak urteotako bidea, eta balorazio oso positiboa egin dute. Aurrera begira, beste erronka bat dute esku artean orain: hazien zaintzaileak topatzea, bildutako haziak zaindu, mantendu eta ugaltzeko. ●



HEMEN DAGO
NAFARROA



Reyno
Gourmet

NAFAR KALITATEA

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

ReynoGourmet.com

“ ”

Loturak antsietate eta inpazientzia handiagoz bizi ditugure belaunaldiak

Lizar Begoña

Kiosko bat, krisian, Benidormeko giri artean. Eta egunkarien atzean, txandaka, adinak eta mundu ikuspegiak desberdintzen dituzten bi lagun. Kontrastezko osagai horiekin garatu du Lizar Begoñak bere lehen eleberria: *Mundu zitalaren kontra*. Gisa bereko inguru batean batu gara harekin. Zarautzen, hondartzatik metro eskasera.

 LANDER ARRETXEAA BEREZIARTUA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

***Mundu zitalaren kontra* da zure lehen eleberriaren izena. Manifestu baten izenburua dirudi.**

Proiektua aurkeztu nuenenean *Itzalkinak eguzkitan* zuen izena, baina Ainara Alkorta margolariak azala bidali zidanean, motibo oso biziarekin eta abar, iruditu zitzaidan kontrastea egiten zuen zerbait behar zuela. Uste dut bi pertsonaiek dutela halako jarrera bat munduaren kontra. Ez dakit mundu hori zitala zenbateraino den, biak bizi direlako mundu gutxi-asko eroso batean. Baina biek dute kontra egiteko jarrera hori, batak bere kioskoa den negozioaren biziraupenaren alde eginez, eta besteak harremanek eragindako barne gatazkatik.

Zarautzen gaude orain, eta ingurura begiratuta, hau ere izan zitekeen

Benidormen kokatu duzun kiosko horren kokalekua. Zer izan da lehenago: Benidorm edo istorioa?

Uste dut nobelaren lehenengo bulkada paperezko edukien eta digitalizazioaren inguruan hitz egiteko nahia izan zela. Gai horrekin bueltaka ari nintzela egin nuen kioskoarekin topo, eta hori izan zen lehen kokaleku fisikoa. Gero, Martin Parrek Benidormen egindako argazkiek jarri zizkidaten begiak bertan. Koka nezakeen Donostian, Zarautzen edo gure kostaldeko edozein herri turistifikatutan, baina iruditzen zait Benidorm toki nahiko antiliterarioa dela, ez oso erromantizatua, eta ematen duela umore-rako helduleku bat. Denok daukagu Benidormen irudi bat, baita Benidormen egon gabe ere. Sinbologia horretaz baliatu naiz.

Artean, modan edo bideoklip musikaletan badago gustu txarreko zatat edo zatartat jo izan diren elementuetan edertasuna bilatzeko joera. Benidormek ere badu zatartasun erakargarri hori?

Egon da, bai, horrelako joera bat esanahi berriak emateko kokaleku batzuei, badago edertasun kutre baten bilaketa bat azken urteetan. Eta uste dut horrek ere erakarri nauela. Prozesuan Benidormen historia ere deskubritu dut. 1950eko hamarkadan izan zuen *boom* turistikoa, baina aurretik herri arrantzale xume bat izan zen. Bat-batean sortu zen orain dagoena, Pedro de la Hoza alkatearen eskutik, eta hor gelditu da, Disneyland itxurako toki bat, kartoizkoa. Eszenografia horretan kokatuta, kioskoa beste hainbat ideiarekin gurutzatu da.

Bi narratzaile ditu eleberriak. Familiaren negozioa den Benidormeko kioskoari eusten dion Pilar, eta izenik ez duen gazte bat, Euskal Herritik doana kioskoan lan egitera. Buruhausteak ekarri dizkizu bi ahots garatu behar horrek?

Digitalizazioa eta paperezko prentsaren arteko kontraste hori metafora gisa erakusteko baliatu dut. Bi belaunaldien arazoak agerraraztea baimendu dit, eta kontrastea etengabe erakustea, nahiko modu simetrikoan eta paraleloan, nobe-



lan zehar. Baina pertsonaia gehiagoren haragitan sartzekak lana biderkatzen du. Menturatu nintzen horrela ekartzera bi identitateak, baina konturatu naiz lan nekeza dela: bakoitzari bere fisikoa eta bere barne mundua sortu behar dizkiozu. Egia da Pilar Colomen pertsonaiarekin gehiago sufritu dudala. Beste belaunaldi bateko identitate batean sartzekak irudimen gehiago eskatzen du.

Hitz-totela da, besteak beste.

Nahi nion eman halako ezaugarri bitxi bat. Ni beste eduki batzuen hartzailea izan naizenean, dela filmak, liburuak... pertsonaiek nortasuna, eta nortasun fisikoa izateak, gehiago erakarri izan naute. Horregatik esleitu nion ezaugarri hori. Uste dut eman diola zerbait, eta aitzakia izan da irakurleari gehiago hurbiltzeko.

“ ”

Distantzia fisikoak handitu dira, baina beti gaude hor, presente

Pilarren bidez, zaintza lanen gaiak ere tokia du eleberrian.

Bizipen pertsonaletik hartutako haria da hori. Alzheimerrarekin nire amamaren bilakaera bizi izan dugu oso gertutik, eta ekarri nahi nuen halako pertsonaia bat. Nire ama zaintza lanetan ikusi dut eta harreman hori ere badago Pilar eta bere ahizpa Doloresengan. Beste belaunaldi bateko emakume baten azalean jartzeko bidea izan da, nik ikusi eta bizi izan dudana horretatik.

Gazteak ere badu gertuko beste pertsonaia bat: Pau, maitasuna eta harremanak modu oso desberdinean bizi dituena.

Bi pertsonaiei eman nahi izan diet bigarren pertsonaia bat ondoan, bai. Gaztearen kasuan, behar nuen beste identitate makarrago bat, maitasunari beste nonbaitetik begiratuko ziona. Pauk ekartzen du izaera basatiago eta muturrekoago hori. Haren bidez aipatzen da Tinder, norbait ezagutu eta gero desagertzea bezalako fenomenoak...

Pauren pertsonaiak ez du genero identitate definiturik.

Liburuari buruz idatzi diren testuetan,

bi emakume langileren kontakizuna dela esaten da, baina nik ez dut esaten ez gaztea ez Pau emakumeak direnik, eta hautu konziente bat izan da hori. Emakume modura izan dira irakurriak oro har, baina nahi nuen hori horrela sartu, zehaztu gabe, ez exotismotik, baizik eta badelako presente dudan beste kezka bat.

Protagonisten haurtzarora ere jo duzu.

Keinu bat izan da, edo maniobra bat, osatzeko pertsonaiak, eta nik neuk ere gehiago ezagutzeko pertsonaia horiek. Nahiko bihotzetik idatzitako pasarteak izan dira; nire oroimenetik asko dago pertsonaia gaztearen iraganean. Gozatu dut horretan, izan da idazketan plazera bilatzeko modu bat. Memorian arakatzea asko betetzen eta hunkitzen nauen zerbait izan da. Gero, behar den edo ez, funtzionatzen duen edo ez, ez dakit, baina gozatu dut hori idazten.

Zure belaunaldiaren nolabaiteko lekukotasuna jaso nahi izan duzula esan duzu. Zerk ezaugarritzen du belaunaldi hori?

Nik uste aurreko belaunaldiarekiko apurketa bizi duen jende multzoaz ari naizela, adin tarte batez baino gehiago. Aurreko belaunaldien ideologia batetik gurera salto bat egon da. Gu agian ez gara ezkonduko, ez dugu biziko maitasuna modu berean... Gure belaunaldiak planteatu ditu aurrekoek mahai-gaineratu ez zituzten gauza batzuk, eta hurrengoek beste zerbait planteatuko dute. Uste dut badagoela kolektibo zabal bat, nolabaiteko ezezkortasun batean bizi dena, ez dena ezeri lotzen.

Zenbat du horrek askapenetik, eta zenbat indibidualizaziotik?

Ezberdina izateak edo gauzak beste modu batera egiteak ez du esan nahi hobeto egiten ditugunik. Eman lezake apologia egiten dela, edo aldarrikatzen dudala maitatzeko beste modu bat, baina ez nago horretan. Uste dut gure moduetan ere badaudela arazoak, traketsak garela askotan. Ez gara ezkonduko, baina agian ez dugu jakingo inoiz zer nahi dugun, eta galduta egongo gara beti. Ardura horretatik ekarri dut gai hori nobelara. Zertan ari gara orain? Zein alde on ditu eta zein alde txar? Galderak horiek jorratu nahi izan ditut, erantzun definitiborik eman gabe.

Digitaltasunak ekarri dituen aldaketekiko kezka da nobelaren



abiapuntuetako bat. Harremantzeko ditugun moduetan eraginik izan du horrek?

Baietz uste dut. Denbora asko ematen dugu pantailei lotuta, eta ukaezina da digitalitateak nola edo hala inpaktua eragin duela gure mundu ikuskeran oro har; tartean, harremanetan. Denok gaude online, hemen eta orain, bestearantzat irisgarri. Paradoxa handi bat bizi dugu: bakarrrik gaude, baina jendez inguratuta, distantzia fisikoak handitu dira, baina beti gaude hor, beti nola-bait presente. Bakardadearekiko intoleranteagoak gara agian, eta akaso loturak antsietate eta inpazientzia handiagoz bizi ditugu.

Aipatzen duzun "ezeri lotu nahi ez izate" horrek esango nuke baduela zerikusirik aurrean dugun errealitate digitalarekin. Paralelismo polita iruditzen zait musikarena. Album oso bati eustea gaitza egiten zaigu egun. Abesti solteak entzuten ditugu, agian ez osorik. Saltoa ibiltzen gara autore batetik bestera, batzuetan egilea nor den jakin gabe ere, eta zerbaitek badiosku abestia ez dela ona, esaterako melodia baten nota bakar batek ez bagaitu konbentzitzen, aldatu egiten dugu. Abaniko osoa dugu eskura, eta "beti dago hobea den zerbait" mantra daramagu tatuatuta. Horrek sortzen duen plazer eta antsietate guztiarekin.

Gaztearen pertsonaiak badu kezka edo galdera bat buruan: nolako izango da gure belaunaldiaren zahartzaroa?

Hor badut beste har txiki bat. Nola kontatuko dugu guk gero hau? Zer kontatuko diegu guk hurrengoei? Eta hurrengoei nola irakurriko gaituzte? Misterio bat da oraindik. Batzuetan pentsatzen dut ez garela hain ezberdinak izango, aurrekoen erreplika bat izango garela azkenean. Baina beharbada ez, agian lortuko dugu zerbait desberdina sortzea.

Digitalizazioaren beste albotik ustezko bat: ez omen dugu irakurtzeko denborarik. Zure belaunaldikideei parez-pare begiratuta, kezkatzen zaitu horrek?

Arduraz bizi dut. Baina ardurak ez du esan nahi txarra denik. Analizatu egiten dut. Egia da, ni hurbiltzen naiz irakurle taldeetara, eta hurbiltzen den jendea eta interesa duen jendea ez da nire adin



“ ”

*Aurreko belaunaldien
ideologia batetik gurera
salto bat egon da. Gu agian
ez gara ezkonduko, baina
agian ez dugu jakingo
inoiz zer nahi dugun, eta
galduta egongo gara*

tartekoa. Eta berdin gozatzen dut, hori ez da kontua. Galdera da: nire ahotsa ez da iritsiko nire lagunengana? Edo nire adinkideengana? Musika egiten dutenek agian badute publiko zabalago bat, baina literatura... Neurri batean dekadentzia dago, paperezko prentsarekin batera.

Zuk zure belaunaldiari idatzi diozu, hala ere.

Frustagarria da nik darabilkidan hizkeraren badelako nire bealunaldiarena. Ez da publiko hori espero dudala, baina pena ematen dit entzuna ez sentitzea gure belaunaldian. Badakit neurri batean baietz, baina ez da araua. Neurri batean bada-goa komunikazio nahi bat, eta horregatik idazten dut nik. Baina apur bat burbuilan sentitzen naiz.

Instagram baliatzen duzu zure zutabeen edo zure liburuaren kritiken berri emateko. Instagram da kiosko berria?

Neurri batean bai. Kioskoak dira prentsa eta bestelakoak saltzeko. Gaur egun nundik jasotzen dugu informazio hori? Edo nondik hartzen dugu aktualitatearen ideia bat? Gure adineko zenbat jende doa kiosko batera edo denda batera

egunkaria erostera? Oso gutxi. Zer da egiten duguna? Twitter edo Instagram arakatu, eta hor sortzen dugu munduaren irudi bat. Batzuek albisteetara joko dute agian, eta beste batzuek informazio bonbardaketaren baitan sortzen dute irudi hori. Ni ere hor nago, eta parte hartzen dut aktiboki.

Igartza bekaren bidez idatzi duzu eleberria, eta epe-muga jakin batekin aritzea dakar horrek. Akuilua izan da?

Bai eta ez. Alde batetik, uste dut betiko presio horrek lagundu dezakeela. Bestela agian ez nukeen amaituko. Egia da sufritu ere egin dudala, gehienbat azken hilabeteetan, ez nekielako nola amaitu, hainbeste modu daude amaitzeko... Baina uste dut muga fisiko eta denborazko batek eman didala aitzakia horretarako. Sufritu dut, baina lagundu dit.

Bi poema libururen ostean, lehen eleberria izan duzu hau. Asebate zaitu egindakoak?

Distantzia behar dut oraindik hori esateko. Nabari dut harrera askoz handiagoa izan duela honek beste bi liburuek baino, genero kontuagatik ziur asko. Baina apur bat beldurrez eta lotsaz bizi dut oraindik. Dena den, uste dut bihotzetik idatzi dudana zerbait izan dela. Saiatu naiz nire ahotsa bilatzen, nire hurbileko errealitatek tira egiten eta ez idazten nigandik oso urrun, nahiz eta kokalekua arrotza izan. Uste dut barneko kontuak hurbilekoak direla, zintzotasunez idatziak, eta alde horretatik lasai geratu naiz.



Hasierak eta amaierak badute bere garrantzia zure lanetan. *Gepardo japoniarrak* poema liburuan hasierari amaiera zantzua eman zenion, eta amaierari hasierarena. Orain, bi protagonistek determinazioz hartutako erabaki banarekin itxi duzu eleberria.

Uste dut prozesuan oso kaotikoa izan naitzela. Idazketa prozesua izan da alde batera eta bestera, gidoirik jarraitu gabe, eta trama ere ez dut oso buruan izan. Gehiago izan da apurka-apurka eszenak sortzen joatea. Hasiera eta bukaera lotzeak lagundu dit itxiera ematen. Ez dudanez kontrolik izan prozesu osoan, amaieran behar nuen bokadilloa ixteko bigarren tapa bat, eta uste dut pertsonaiek halako klimax bat behar zutela. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA JUNE FERNANDEZEK, AINGERUAK ETA NESKAMEAK. HAURDUNALDI SUBROGATUEI BURUZKO ANALISI FEMINISTAK SAIKERA LIBURUA ARGITARATU BERRI DUEN KAZETARIAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		9		6	8		1	4
			4				7	5
8	5		3	1		6	9	2
7		5	1			2	8	
	8	2		4	6	1	5	9
1		6	8			4		
	6			7	1			
4	2					6	1	
	1	7		3		5	2	

ERRAZA


	6	8		3	9	2		
			8		2		3	4
		9		4		5		
1	5	6						
	2		6	9				
		3					5	
			4		6			
		2	7			3		9
6		1						

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Uhin.
2. Bezala.
3. Nabari.
4. Ur mineral berozko bainua.
5. Gogo biziak.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				A	R	A	Z	I
2	I				G	E	L	A
3	L	I				E	T	A
4	K	L	I				T	U
5	N	A	R	R				I
6	U	R	R	A	T			

EBAZPENAK

9	1	7	6	3	4	5	2	8
4	2	3	9	8	5	7	6	1
5	6	8	2	7	1	9	4	3
1	9	6	8	5	2	4	3	7
3	8	2	7	4	6	1	5	9
7	4	5	1	9	3	2	8	6
8	5	4	3	1	7	6	9	2
6	3	1	4	2	9	8	7	5
2	7	9	5	6	8	3	1	4

ERRAZA

6	8	1	9	2	3	7	4	5
5	4	2	7	8	1	3	6	9
3	9	7	4	5	6	8	2	1
9	7	3	2	1	4	6	5	8
8	2	4	6	9	5	1	7	3
1	5	6	3	7	8	4	9	2
2	3	9	1	4	7	5	8	6
7	1	5	8	6	2	9	3	4
4	6	8	5	3	9	2	1	7

ZAILA

PUZLEA: "EZ DITUZU GERTUKO PERTSONAK MINDU NAHI, BAINA SISTEMA MAKRO BAT DAGO, INDUSTRIA BAT, ETA LOGIKA JAKIN BATZUK FEMINISMOTIK KRITIKATU NAHI DITGUNAK."
5X5: 1. OLATU, 2. LEGEZ, 3. AGERI, 4. TERMA, 5. UZIAK.
HIZKI BERAK: 1. ASKARAZI, 2. IKASGELA, 3. LISAKETA, 4. KLISKATU, 5. NARRASKI, 6. URRATSAK.



Merezi dugun euskal opera

PATXI GAZTELUMENDI E. MORENO ESQUIBEL / ARRIAGA ANTZOKIA

Durangoko Hitz liburu-dendan otu zitzaidan *Saturraran* operak merezi zuela kritika. Jose Julian Bakedanoren arrapostua batetik, liburu-dendako Gaizka Olabarriren berben ilusioa, horrenbeste urtean Hitz liburu-dendako ardura eraman izan duen Nekane Bereziartuak opera hori ikusteko eta entzuteko adierazitako gogo... eta ikusirik euskal prentsak ez duela barbarik idatzi opera jokatu ostean, hemen hiru-lau berba kontuari buruz.

Guridiren *Amaya* 1920ko maiatzaren 22an jokatu zen lehen aldiz Bilboko Coliseo Albian. 2024ko ekainean, Kirmen Uribek eta Juan Carlos Perezek atondutako *Saturraran* gozatu dugu, bi egunez. Mendea egin du operak isilik, euskaraz bederen. Horra lehen gogoeta. Sarean ikasten hasi eta Euskal Kultur Erakundearen gunean zera irakurri daiteke: "Lehen 'euskal' opera 1884an agertu zen Donostian, ihauteriak kari. *Pudente* ikusgarri dibertigarria da". Serafin Baroja eta Jose Antonio Santestebanek sortua. Partitura galdurik da aidanean.

Arriaga betean aditu genuen, bada, *Saturraran* obra. Taula gainean arrantzaleak, eta oroz gain bi neska. Ane (arrantzalearen alaba) eta furgonetan heldu berria zen Luna. Erakarmena. Hondartza. Maitasun berria. Eta mundu are berriagoak. Berba bat ikasi diot Kirmen Uriberi: lupua. Eszenatoki gainean ingelesez *heroin* irakurri dut, *caballo* elearen aldamenean. Pozoitu nau Kirmen Uriberen lanak. Engantxatu. Eta adi-adi jarraitu dugu opera moldez, XXI. mendean sortu lehen obra. 1980ko hamarkadara garamatza. Ondarroa dugu denok buruan. Eta libretoko esaldiak kantuz jarriz abeslari ezin trebeagoak.

Bilboko Orkestra Sinfonikoa taularen gainean. Bilboko Koralarren hainbat agerraldi. Bikainak. Juan Carlos Perezek sortutako lana. Ezin abesti deitu han entzundakoei. Ez dago melodia askorik. Kanturik ez da. Labur eta zehatz abestera behartuak dira interpreteak. Keinuren bat egin diote *Boga Boga* eza-gunari, baina ez da abesten; ez dago abestirik.

SATURRARAN

NOIZ: ekainaren 22an

NON: Arriaga Antzokian (Bilbo)

Melodia eta kantuzale gara euskaldunok. Horren hutsunea nabaritu dut. Operaren ostean, alde zaharreko tabernetan izan ditugun elkarrizketetan, batek baino gehiagok gura izan du abestiren bat. Zeozertxo. Juan Carlos Perezen hautua ordea, bortitzagoa izan da. Ertzekoa. Egoera bera bezala. Bi neska protagonisten patuaz pentsatzen hasi naiz une batez, bizi izan zituzten une atsegin haiei omenalditxo bazegokiela. Bakebakean joan zen Ane. Itsasoak eraman zuen. Lurrean geratu da Luna. Eta gu, ikusten genuenari so. Zur eta lur. Obra eder bat. Eszenografia bikaina. Irudimena bor-borka. Orduko garaiaren bertsio modernoa. Paretan margotutako aldarrikapen eta protesta eta guzti, gainera. Euskaraz idatzi eta sortu den operarik garaikideena. Euskal kulturgintzaren ikur izan zitekeen lan bat. Saturrarak mundura eroateko modukoa. Ba ote? Saio gehiago egitea funtsezkoa litzateke. Eta libretoa argitaratzea, paperean, zer gutxiago. Gure hizkuntzak, gure herriak merezi du. ●



LIBURUA

Sorginen duintasuna aldarri



DAVID SHANKBONE

SORGINAK, EMAGINAK ETA ERIZAINAK

BARBARA EHRENRICH
ETA DEIRDRE ENGLISH

KATAKRAK, 2019

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

LAN kontu bat dela eta berrirakurri behar izan dut liburu zoragarri hau. Teoria, genealogia eta historia feminista batzen dituen liburu motz honek kritika ugari izango zituelakoan sarean begiratu eta, sorpresa! bakarra aurkitu dut, Irati Majuelok *Berria*-n idatzi zuena.

Katakrakek argitaratutako liburuak bi atal nagusi ditu: argitaletxearen oharra, Silvia Federiciren hitzaurrea eta autoreek beraiek argitaldi bakoitzari egindako sarrera bana batzen dituen lehengo. Federicik euskarazko ediziorako egiten duen hitzaurrean *Caliban eta sorgina* (Elkar, 2017) idazteko liburu honek izan zuen garrantzia azpimarratzen du. Eta liburuaren idazleek Bostongo emakume feministek martxan jarritako ikastaro sorta aipatzen dute; baita *Our Bodies, Ourselves* (1970) liburu iraultzailea ere.

Bigarren atalari dokumentu deitu


zioten Ehrenreich eta Englishek, 60-70 orri inguruz osatutakoa baita irakurriko dugun saiakera. Liburuaren azpituak pista ugari emango dizkigu: *Emakumezko sendalarien historia bat*. Izan ere, 1971n lehenengoz argitaratu zen liburuak ordu arte sorginei buruz eraikitako errelatua auzitan jarri nahi izan zuen, estigma zahar eta deabrukerietatik urruti. Horretarako hiru azpiatal banatzen dira, eta azkenerako ondorioak gorde.

Lehenengo azpiataleko tesi nagusietako bat honako hau da: sorginak emaginak, sendalariak, erizainak zirela frogatu nahi izan zuten eta gaur egun ezagutzen dugun medikuntza ezartzeko genozidioa izenda genezakeena, horrela adierazten dute, adibidez: "*Elizak eta estatuak abian jarri, diruz lagundu eta gauzatutako karpaina ondo antolatuak izan ziren sorgin ehizak* (45.or). Autoreak estatubatuarrek

izanik, AEBtan prozesu hau nola garatu zuten aztertzen dute bigarren zatian, eta emagin zein erizain figurei buruz sakonago hausnartzen dute.

Esaldi zuzen eta argiekin josten dute autoreek dokumentua edo saiakera. Hausnarketa sorginen garaiko dokumentu zatiekin eta irudiekin hornitzen dute, eta hala, zer kontaktzen zen, zein den horri buruz dugun iruditeria, eta abar erakusten dute. Liburuak altxor bat da, historian mugarria markatzen duen testu ezinbestekoa. Irakurri ostean, gaur egungo egoerari buruz dugun irakurketa aldarazi dezakeen testu boteretsua da.

Sorginen jakinduria eten izana da kolektibo bezala bizi izan dugun galera handienetako bat eta hori salatzen du testuak. Sorginei duintasuna, beraien lekua, eta errelatua itzultzeko aldarrikapena egiten du. ●



MUSIKA

Zero biderkatuta, auskalo emaitza!



IKER BARANDIARAN

Lau elementuren arteko baturak ez du beti lau ematen; gehienetan hori baino gehiago. Eta zer esanik ez, hainbat proiektutan ibili eta auskalo nola eta zergatik elkartu ziren hauek: Atxe, Led Infierno, Osoron eta Txerra. Aurrekariengatik uste genuen punka egingo zutela, baina hain dira irekiak, eta hain aurreikuspen gabekoa (hain justu bestelako musika proiekturik izan ez duen Led Infierno), ezen pausoz pauso harritzen gaituzten.

Seguruenik zerotik hasteak laguntzen die zabaltasunez aritzen buruz eta jarreraz, titi puntan jartzen zaiena egiten; erabat aske dira eta nabaritzen da gero eta gehiago. Eta punkiak bai, bada, burutik oinetaraino, baina gogo

dute estilo klixeeetatik harago joateko, nahiz eta zuzenekoetan -hor bai!- ez dagoen zalantzarik izerdia, amorrua, probokazioa, interakzioa eta jokoa maite dituztela.

Lan berri honetan are eta nabarmenagoa da (duten harreman sano eta onez gain) bizi duten askatasuna eta aurreiritzi eza, eta ospatzekoa da. Oraingo ere Gakobeltz Hit Faktorian grabatu dute Miren Narbaiza eta Joseba B. Lenoirrekin, kalitate eta arreta onenean. Diskoa *Cajón de mis medicinas*-ekin hasten da, non erritmo aldaketa dezentekoak dituen rock-and-roll jostaria, happy samarra, medikatu ahala psikodelian eta erritmo sasi-dantzagarrietan blaitzen duten. Jarraian dator *Sigo aquí*,



CAJÓN DE MIS MEDICINAS

ZERO

AUTOEKOIZPENA

jatorrizko Warsaw Joy Division handiei lapurtutakoa bada ere, haien esparrura indartsu eta dotoreziaz eraman dute, punk eta ildo skizo-garage-surferora. *Ensayos de tu funeral* rock urbano, rock-and-roll makarra jaio eta garage-rock zikin gitarrero hiltzen da. Etorri ahala desagertzen den *Intzak lo eta jangoek me* Spazztic Blur-en tamainan erotutako punk-rocka. *Dime dónde*-k erakusten digu rock gogorraren eta heavyaren arteko mugak lausoak direla eta Gasteiz Eskandinavia baino iparrerago dagoela gitarren mapan. Bukatzeko, apustua irabazi dute: irrati formuletarako balada rockeroa idazteko gai direla erakutsi dute *Ez zen istripu bat izan* abestiarekin. Ala ez zuten nahita egin? ●

Eurokopan, gol gehienak eskuineko hegaletik

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Jakin behar da desberdintzen zer den urgentea eta zer den inportantea, baina azkenaldian demonio konplikatuak bihurtu da ariketa hori. Pantailan agertzen zaizkidan notizia guztiek dirudite inportantzia handikoak eta urgentzia larrikoak; eta hainbeste urgeinportantzia pixka bat beteta nenbilenez, Eurokopako partiduak ikusten hasi nintzen duela aste batzuk.

Uste nuen zirku futbolistikoak lagunduko zidala pixka batean ahazten XXI. mendearen laurden honetan nonahitik haginka datozen arriskuez. Marka da gero, futboleko estadio batean sosegu pixka bat bilatu beharra. Eta gainera, aurkitu ez. Inuzentea izan behar baitu pertsonak uste izateko munduko istiluak eta iskiluak berdegunetik kanpo geratuko zirela Europako estatuen arteko ostikolari-demak jokatu bitartean. Ulertu behar didazue, dena den: horrelako txapelketak lehen ere munduko gauzarik zibilizatuena ez ziren arren,

proiektatzen zena nahiko nazionalismo hutsala zen, banderatzokak eta ereserkiak, gol batzuk, nerbioak, agian malkoren bat, akaso euforia; eta gero, etxera. Plan familiarra izan zitekeen partidu bat ikustea. Aurten ez.

Kroaziako eta Albaniako taldeek elkarren kontra jokatu zutenean hasi nintzen muturra okertzen: bideo batean bi taldeetako zaleak ikusi nituen elkarrekin *Bojna Čavoglave* abesten, zeinak konnotazio faxista argiak dauzkan. Estadio barruan “hil, hil, hil serbiarra!” oihuka ere aritu ziren geroxeago eta Serbiako futbol federazioko idazkari nagusiak “aski da” esan zion UEFari. Baina tira, balkankeriak, pentsatuko zuen baten batek, itsugarri zabalduta baitago paraje haietako biztanleak astakirten hutsak direla eta horregatik dabilzala beti elkar akabatu nahian.

Turkia-Austria partiduan ez zegoen ordea Jugoslavia zatitu osteko gorrotorik. Eta hara non, Merih Demiral jokalaria turkiarrak gol bat ospatzeko bi

eskuak otso-mutur biren tankeran jarri zituen. Kristo guztiak Otso Grisak talde faxistaren aldeko keinutzat ulertu zuen, bi partiduko zigorra jarri zioten. Ez zuen askorako balio izan: Herbehereen aurkako partiduen hasieran, Turkiako zale mordoak keinu bera egiten harmailan.

Eta Austria-Polonia partiduen amaieran “Europa defendatu” zioen bandera agertu zen, eskuin muturreko Mugimendu Identitarioaren lema, alegia. Eta ukrainar zaleak “Free Azov” pankartarekin estadiora bidean. Eta zale hungariarrak Gigi D’Agostinoren *L’amour toujours* kantaren bertsoia egiten, amodioaren aldeko mezuen ordez “atzeritarrak kanpora” oihukatuz. Eta Alemaniako ARD telebista katearen inkesta, selekzioan jokalaria zuri gehiago behar ote diren. Hainbeste modutan normaldu dira mezu xenofoboak, arrazistak, ultraeskuindarrak eta faxistak, eta hain modu esplizituan, zale holandar batzuek Ruud Gullit bezala janzteko egin zuten *blackface*-a ia oharkabean pasa baita. Zale espainiarren harmailtan ikusi diren Borgoinako gurutzak bezalaxe.

Ez dizuet esan, portzierto: Eurokopa hau Portugalek irabaztea nahi nuen. Eta ez du irabaziko. Ez da posible izan go zeren, datorren urtean 40 urte beteko dituen jokalaria bat –Cristiano Ronaldo dos Santos Aveiro du izena– minutu guztiak jokatzen egoskortsu baita. 23 aldiz jaurti du atera –Eurokopan beste inork baino gehiagotan–, eta ez du gol triste bat ere sartu. Duela urte batzuk haren jokoak zeukan distira ilundu da guztiz, baina berak ez du onartu nahi. Agorrean gogor, talde osoa eraman du bere egoaren zurrunbilan behera. Ezkerreko talde eta ordezkarri zenbaiten jokabidea zein antzekoa den konturatzeari, hori bai dela lan urgentea eta inportantea. ●



Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.